



**Pentsiorik
EZ
1.020 €tik behera**

/// pentsionistak martxan

KRISI GORIAN

- U-27ko greba eta pentsioen erreforma
- Gazteak beren etorkizunaz
- Babcock Wilcox-eko kaleratzeak



Euskal Herriko eta munduko aktualitatearen argazkia

Oparitu **Argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxes: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



gizarte
kutxa
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko urtarrilaren 23a, 2.261. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Joxerra Garzia:** «Agoniko, hala deitzen digute postmoderno batzuek errukirriz». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Gazteak eta krisia.** Etorkizun (ilun)erako prestatuak. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Mikel Markez:** «Berririo gitarra hartu eta lubakira jaisteko gogoz nago». UXUE ALBERDI / 10

Gaiak

- **Cecilio Arabaolaza, Azpeitiko Danborradaren sortzaileetakoa:** «Sortu genuen hura azpeitiarrek beren festa gisa bizitzea zoragarria da». IRATI SARASUA / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Hau dena fotokopiatu nahi nuke. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Paraliturgia.** XABIER MENDIGUREN ELIZEGI / 20
- **Txandan** Arratiako. IGOR ESTANKONA / 20
- **Makroa eta agian mikroa.** JOXERRA AIZPURUA / 21
- **Hiruko txikian** Zein bide, JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Gabonkeriei jarriak. IMANOL LAZKANO / 22

Erdiko kaiera

- **Antzerkia.** Mundua kanta batean sartzen delako. OIER GUILLAN / 23
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** UNAI BREA / 29
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 32
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 33
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

Termometroa

- **U-27ko greba orokorra.** Gaur lan gehiago egin, bihar gutxiago kobratzeko. DANIEL UDALAITZ, URKO APAOLAZA / 35
- **Babcock Wilcox.** Beste espekulazio eragiketa baten biktima? DANIEL UDALAITZ, UNAI BREA / 41
- **Hizkuntzak musikan.** Ingelesezt kantari, estiloak eskatzen duelako. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Kaleko istiluak: Estatuak gazteak kanpo laga ditu. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Ezina ekinez egina. JOXE IRLARTE, BIKILA / 50



“Agoniko, hala deitzen digute postmoderno batzuek errukirriz”

Joxerra Garzia | Orain irakaslea

Ez kazetari ez azeri: aukeran, nahiago oilategitik urrun.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Ez Gartzia, ez Garcia; akademia guztien gaineratik zu.

Lehenbiziko liburua argitaratu nuenean, *Garzia* eta *Gartzia*, biak zeuden ondo. Orain euskarazkoa jarriko banu, eskizofrenian behar nuke, eta orain arte ez naiz animatu.

Garzia: saltsa guztietako perrexila?

Axolako kontuetan buru-belarri aldekoa naiz, eta horrek perrexil fama ekartzen badit, hor konpon. *Agoniko*, hala deitzen digute postmoderno batzuek errukirriz. Nik nahiago *agoniko* ezen ez *egoniko*.

Hasi zara jolasean...

Hizkuntza erabiltzean plazerik ez bada, alferrik da gainerako guztia. Kanpotik artifizialki erantsitako motibazioek erabilera folklorikoa sustatzeko baino ez dute balio, kasurik onenean.

Hizkuntza lehenik, ala hiztunak?

Euskaldunentzat ari garenez, hiztunen alde ni. Baina erdaldunentzat —hemengo zein hangoentzat— aritzean, ez dut uste dikotomia hori erabiltzea komeni zaigunik.

Komunikaziorako tresna egokia bada, ona omen hizkuntza.

Koldo Mitxelenaren esana, nahiz aspaldi neure egina dudana. Hizkuntzak hobeto bizi-tzeko balio behar dio hiztunari; beste alternatiba museoa da.

Euskara nola saldu ari gara, aspaldi saldu genuena.

Euskararen munduan ari garenak ari gara, eta ari ez direnak nahi ez dutelako ez dira ari. Euskarara erakarri beharra daukagu jendea eta estrategia bateratu koherenterik ez dut ikusten. Lehengo agintariei ez, are gutxiago oraingoei.

EITB etorri zait gogora: ez da hedabide arrunta. Ez luke behar.

Hemen komunitate bat dago, euskaraz bizi-tzeko hautua egin duena. Komunitate horrek bere buruari eusteko zer behar duen pentsatu eta erabaki behar du, eta horren araberrako tresnak sortu, EITB barne.

Zentsura aipatzen da orain, ezagutu zenuen zuk *Hitzetik Hortzeran*.

Barregarria da uste izatea zentsura oraingo agintariek asmatu dutela. Hori ere gaizki egiten ari direla, hori da aldea.

Aspaldion, ez ote zauden isil xamar. Edo telebistan ez agertzearen ajeak.

Hedabideetatik sarri samar hots egiten didate, baina iruditzen zait oilategi formatua nagusitu dela. Baldintza horietan ezinezkoa da ganorazko ekarpenik egitea, eta nahiago ez joan.

Irakasletzak buruhauste gutxiago, beraz.

Irakaslearen funtzioa ez da burua hauste, burua zabaltzea baizik. Ikasleena, jakina, eta berea. Alde horretatik, ez dago lanbide esker hobekorik. ■

• ASTERKO GAIA •

Gazteak eta krisia

Etorkizun (ilun)erako prestatuak

Inoiz baino prestuagoak daude, eta ordainetan langabezia edo baldintza prekarioak eskaintzen dizkie lan merkatuak. Nazioarteko Diru Funtseko zuzendari Dominique Strauss-Kahnek “belaunaldi galdua” izendatu zituen berriki. 35 urte baino gutxiago dituzte eta etorkizuna nola ikusten duten jakin nahi izan dugu.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

SEI URTE zeramatzan enpresa berean lanean eta ordaintzen ez zioten antzinasuna eskatzea erabaki zuen. Eman egin zioten... eta handik hamabost egunera kalera bota zuten.

Horixe Aitor Zabaletak duela gutxi autobusean emakume bati entzundakoa. Azken finean, kaleratze bidegabea enpresei merke ateratzen zaiela dio Zabaletak, eta enpresa

Ezker-eskuin: Aitor Zabaleta, Amagoia Ruiz, Unai San Sebastian eta Unai Kerejeta.
Lauak bildu genituen, krisiaz eta belaunaldi berrien etorkizuneko aukerez solasteko.



handien, bankuen eta agintarien helburua ahalik eta diru gehien irabaztea dela, krisiaren aitzineko filosofia mantenduz: “Krisiaren aurrean egiten ari diren ekintza guztiek bilatzen dute egitura ez aldatzea, ezagutzen dugun muntaia sostengatzea, baina hori akatsa da, azken urteetan gezurrezko hazkundea eman digun arren arazo estrukturala dagoelako atzean, sistema honek ez du funtzionatzen, eta alternatibak bilatu behar dira”.

Lan baldintzen gainbehera ekarri du sistema horrek, Ongizate Estatua baldintzatzerainoko murrizketak eragin ditu eta prekarietatea orokortu du. Bai, prekario bital bihurtzeko arriskua gertu dute egungo gazteek, baldintzok betikotzea, “funikular” bizitzetatik “karrusel” bizitzetara igaro garelako, Gorka Moreno soziologia irakasleak ARGIA-ko iritzi sailean zioenez (2.251 zenbakian): “Lehen peoi gisa hasten ziren asko, denboraren poderioz soldata altuagoak eta postu hobeak lortzen zituzten, eta honen bidez jubilazio-pentsio duinak bermatu ere”. Iraganeko bizitzek beti gora egiten zuten. Orain, ordea, galdu da diru-sarreraren ziurtasuna eta lanpostu finkoaren bermea, baita eskarmentu handiena dutenentzat ere, horiek garesti ateratzen zaizkiolako sistemari, Xabier Aierdi soziologoak dioenez. Bere ustez, aro berri baten hasiera da, dagoeneko soberakinak sortzen hasi delako prozesu produktiboa, ez da hainbeste langile behar, eta gainera, sistemaren logikaren arabera zenbat eta produkzio efizienteagoa izan orduan eta langabezia gehiago sortuko da. “Ez dago nahikoa jende behar bezainbeste auto erosteko, beraz soluzioa ezin da izan auto gehiago egitea! Esaten

da kontsumoa suspertu beharra dagoela, eta aldi berean jendea bota egiten da enpresetatik. Egungo sistema bidegabea da, eta ez dirudi buelta emateko aukera dagoenik”.

Gaiaz hitz egiteko gonbidatu ditugun lau gazteek ere ilun ikusten dute etorkizuna. Unai San Sebastianek eta Unai Kerejetak esperantza dute krisia pasa pasako dena, baina antzematen dute oraingoan krisi ezberdina dela, luze iraungo duela egoera gaitzak. Amagoia Ruizen aburuz, lan baldintza kaskarragoak ezartzeko aprobetxatu dute enpresak, soldatak asko jaisteko, eta berriz ere lana sortzen hasten denean, ezingo dira hain erraz lehengo ezaugarriak berreskuratu: “Urte askotan aprobetxatuko direla esango nuke, ea ez garen bide horretan beste krisi batean erortzen...”.

Bekadun praktikekin jasotzen da lehenengo zaplaztekoa. Komunikazio arloan lan egitea gustatuko litzaioke Zabaletari, baina zaila ikusten du, lehia handia dagoelako, eta prekarietatea da nagusi: “Euskadi Irratian aritu nintzen udan, eta izugarri balio duen jendea ikusi nuen, baina praktikak bukatzean kalera botatzen zituzten, ez zaielako ekonomikoki komeni kontratua egitea. Berriz postu bererako beste bat hartu, jakintza eta esperientzia urriagokoa, eta aurrera. Berdin zaie kalitate gutxiago ematea, merkeago ateratzen bazaie”.

San Sebastian eta Kerejeta modulu banatan ari dira, Goierri aldeko enpresetan praktikak egin eta, ondo joanez gero, han geratzeko xedearekin. Beraien arloan enpresek ez omen dute azpijokorik egiten bekadunak aprobetxatzeko, eta lana egongo den itxaropena ez dute galdu. “Kontua da zein baldintzetan



“Agian muturrera heldu beharko gara, jendea mugitzeko”

Unai Kerejeta, 33 urte

Urretxuar honek ile-apainketa ikasi zuen bost urtez, ile-apaindegi propioa jartzekotan izan zen, baina azkenean metalaren munduan sartu eta 9 urte eman zituen tailerlean lanean. Enpresak Fagor-entzat egiten zuen lan, harik eta krisiarekin itxi behar izan zuen arte, 2009ko martxoan. Langabezia amaitzeaz eta Metal Eraikuntzak goimailakoa bukatzeaz da: “Praktika eta esperientzia badauzkat, titulua falta zitzaidan”.

“Negozio propioa abiatzea asko arriskatzea da gaur egun”

Unai San Sebastian, 27 urte

Idiazabalgo gazteak Ingeniaritza teknika egin zuen, mekanikan, amaierako proiektua arbelgintzan egokitu zitzaion, hiru urte pasa zituen proiektuarekin, baina krisiarekin enpresa EEEen sartu eta langile guztiak kalera bota zituen 2009an. Lan bila aritu ondoren, prestakuntza handitzea erabaki du, ingelesa ikasiz eta mekanizazio bidezko produkzioko goimailako zikloa eginez. “Berritu eta ea nola doakidan”.



—gaineratu du Zabaletak—. Gipuzkoan agian ez da hain handia langabezia, baina krisia aprobetxatuz asko jaitsi dira baldintzak; jendea prest dago enplegu bat lortzeagatik edo zer onartzeko, hipotekak-eta itota daudela-ko”. Kerejetak dio lehen metalgintzan Bizkaitik Gipuzkoara joaten zirela langile bila eta jendeak lanpostua aukeratzen zuela baldintzen eta soldataren arabera, “baina hori bukatu da, orain alderantzizkoa da egoera”.

Eta gainera jende prestatua dute enpresek ate joka. Are gehiago, sarri gainprestatuta eta gainkualifikatuta, lortzen dituzten lanpostuetarako. Zabaletak kontatu duenez, aitak enpresa batean egiten du lan, eta eguneroko ogia da honakoa: curriculum oso onak izanagatik, orain sartzen diren gazte guztiei askoz soldata baxuagoak eskaintzen zaizkie, baldintza oso kaskarretan, “eta denek esaten dute baietz”. Aierdik berak nabaritu du belaunaldi aldaketa unibertsitatean: “Ez da posible nik bezalako lana egiten duenak, ni baino 25 urte geroago jaio izanagatik, nire seigarrena irabaztea; eta unibertsitatean hala da: ordezkoei 500-600 euro kobratzen dituzte gehienez. Enpresetan are okerragoak dira kondizioak, eta hori ezin da onartu, lotsa eman beharko liguke, gogoetara bultzatu”.

Baldintza horietan, gazteek arraz zail dute gurasoen etxetik alde egitea. Neska-lagunarekin bizi da Kerejeta, eta bikotea lanean ari denez oraingoz eramangarria zaie hipoteka, baina urretxuarrari martxoan bukatzen zaio

Ez da hainbeste langile behar, eta sistemaren logikaren arabera zenbat eta produkzio efizienteagoa izan, orduan eta langabezia gehiago sortuko da

langabezia “eta orduan izango dira kome-riak”, praktiken ostean lana aurkitzea beste erremediorik ez du, hipotekak ito ez ditzan. San Sebastiani, gauzak orain dauden bezala, ezinezkoa iruditzen zaio pisu batean bakarrik sartzeko aukera, eta Zabaletak garbi du eroste ez duela eskueran, aurten karrera bukatu eta bere alorrean lana lortuta ere: “Ziurrenik lagun talde batekin joan beharko naiz alokairuan eta hala ere larri, alokairua bera suizidioa delako oraintxe! Bestela, nire lagun askoren moduan aritu beharko naiz: lanpostu batean astean zehar, eta tabernaren batean edo asteburuan, morroi baten gisa, alegia”.

Zabaletak eztabaida izan zuen lagun batekin, eta zalan-tzak argitzea deliberatu zuen: aitari duela 30 urteko nomina eta garai hartan erositako etxearen salneurria eskatu zizkion; ondoren, egungo aitaren nominarekin eta etxebizitzaren prezioarekin konparatu zituen, eta proportzioa izugarri handitu dela egiaztatu zuen —imajinatu ariketa gazte hasiberriaren

soldatarekin eginez gero—. Alokairu sozialaren aldekoa da Zabaleta, baina gurasoen etxean geratzea da askoren aukera bakarra. “Nik kasu bat baino gehiago ikusi dut inguruan: etxea erosi, gero ezin mantendu, alokairuan jarri eta berriz gurasoenera bueltatu behar”.

Alternatiba bila

Panoramari aurre egiteko, ikasketak aukeratu dituzte lau solaskide gazteek: langabezian



“Kontratu gabe, baldintza txarretan aritu naiz, baina azken helburua ez ahaztea da inportantea”


Amagoia Ruiz, 32 urte

Arte Ederrak ikasi ostean doktoregoari heldu zion Irungoak; tesina egina du eta tesia amaitzeke (Eusko Jaurlaritzaren beka bat izan du tesia lantzeko). Kutxazain, zerbitzari eta marrazteko eskolak ematen aritu da, eta ikastaro ugari egiten jarraitzen du, ondo prestatzeko. “Niri gustatu egiten zait ikastea”.

“Onenak ere praktikak bukatzean kalera botatzen zituzten. Berdin zaie kalitatea, merkeago ateratzen bazaie”

Aitor Zabaleta, 23 urte

Batxilerra bukatu eta zer egin ez zekiela, lagun batek animatuta jatetxeen munduan sartu zen, “baina praktiketako lau hilabetetan ikusi nuen oso lan gogorra zela bizitza guztian egiteko”. Orain, Komunikazio ikasketak bukatzeaz da eta tabernan egiten du lan asteburuetan.



geratu ostean lanbide heziketako modulua Kerejetak eta San Sebastianek, tabernako lanarekin uztartuta Komunikazio ikasketak Zabaletak, eta Arte Ederretako tesia Ruizek: “Hurrengo hamarkadan unibertsitateko irakasle ugari jubilatuko dira eta nire helburua lanpostu hori lortzea da, baina auskalo noiz, hamar urteko epean agian... Bitartean zer egin? Ikasten jarraitu eta edozertan lan egin, pazientziarekin. Tabernan, eskolak ematen, kutxazain... aritu naiz, askotan kontratu gabe eta baldintza txarrekin, baina azken helburua ahazten ez duen bitartean, berdín zait bidea gogorra bada”.

Ikasketak orokorrean oso teorikoak direla kexatu dira, baina etxean lanik gabe eta zereginik gabe geratzea baino hobea da prestatzea. Beste alternatibak? Negozio propioa abiatzea asko arriskatzea dela argi du San Sebastianek, “enpresa handiak gaizki daude eta guk ere lehiatzeko oso zaila izango genuke”. Kerejetaren hitzetan, “atzerrira bidaiatzen bukatu beharko dugu denok, Alemaniara edo Suitzara, garai batean bezala”. Baina Zabaletak ez du ideia hori maite: “Kanpora ateratzearena jende askori entzun diot eta nik ere planteatu izan dut, baina euskalduna naiz eta nire etorkizuna ahal bada bertan egin nahi dut. Pena litzateke alternatiba bakarra izatea kanpora joan beharra. Hemen bilatu behar ditugu soluzioak, gizarte justuagoa eraiki, eta horretarako gizarteak bere ekonomiaren jabe izan behar du. Krisi honek eman digu horretarako aukera, adibidez banku guztiak bata bestearen atzetik erori direnean, berauek nazionalizatzearen alde egin zezaketen”.

Pentsamolde aldaketa

Deshazkundeari buruzko eztabaida puripurian dagoen honetan, krisia mentalitatez aldatzeko aukera izan al daitekeen galdetu diet solaskideei, azken urteetako oparotasunaren aldean austeritaterako bidea hartzeko garaia ote den. Kerejetak dio hain ondo ohituta egon ostean ez dela erraza egoera berrira moldatzea, baina bere kasuan ez zaiola kostatuko, aurreko soldata ez zuelako oso ona. San Sebastianentzat, lagunekin elkartzea, herriko elkarteetan aldian behin afaritxoa egitea eta astelehenetan lanera joan ahal izatea litzateke ondo bizitzea, ez du uste askoz gehiago behar denik bizimodu duina eramateko, eta Ruiz konformatuko litzateke lan bakarra izatearekin, astelehenetik ostiralera, eta gustura egingo duen lana bada hobe, ordu asko sartzen dira-eta lantokian. “Soldatak ez du handia izan beharrik, ondo bizitzeko adina baidzik, eta ondo ez da adibidez oporretara joateko dirua izatea; gure gurasoak ez ziren oporretara joaten eta gu geroz eta gehiago

163.000 langabe

Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak eman digu Euskal Herriko langabeziaren azken datua: 2010eko irailean, %10,21ekoa zen langabezi tasa, alegia 163.000 langabe –Hego Euskal Herriko datuak Espainiako Estatistikako Institutu Nazionaletik hartu dituzte; Iparraldekoa estimazio bat da–. Hego Euskal Herrian, dena den, langabezia %2 igo zen abenduan.

goaz, ez bakarrik udan, orain baita edozein jai egun eta zubitan ere”.

Bidaia-zeza, bi auto edukitzea edo markako arropa izatea al da ondo bizitzea? Jende batek hala ikusten duela nabarmendu du Zabaletak, zorientasuna gauza materialetara eramán dugula. “Triste zaude eta erosketak egitera zoaz, gutziaren bat erostera, arropa... baina gure zorientasuna eta denbora libreá beste norabaitera bideratu behar dugu, kontsumismoari lotuta ez dagoen bizimodura. Irakatsi digute bizi behar dugula kontsumituz, batzuei hori interesatzen zaielako, eurak aberasteko, telebistan ere hala saldu digute, eta gurpil zoro horretan erori gara”.

Itxurakeria ere handia dela azpimarratu dute, ezin duzula “besteak baino gutxiago” izan, ezin edozertan lan egin edo besteak baino diru gutxiago gastatu. San Sebastianek eta Kerejetak 18-19 urteko ikaskideak dituzte moduluetan, eta nabari omen zaie oraindik ez dutela estualdi ekonomikorik jasan, lasai bizi direla, etorkizunarekiko kezka handiegirik gabe. “Azken finean, zein eredu jasotzen dute gugandik? –Ruizek– Ikusi dute ikasi eta ikasi aritu garelá, ondoren lanik gabe geratzeko edo lan baldintza oso txarretan jarduteko, beraz...”. “Gazteak ez dira tontoak –Zabaletak– eta ematen badiezu dena eginda, hartu egingo dute, eroso asko egokituko dira, nik berdina egingo nuke. Arazoa baloreetan dago, erakutsi digutelako nahi dugun guztia dugula txikitatik. Lehen lan egitea positiboa zen, eta orain ergela izatea: lortu behar da ahalik eta gutxien lan eginez ahalik eta diru gehien irabaztea. Telebista piztu eta zeintzuk dira eredu? Belen Esteban, Gran Hermano...”.

Baina frustrazioa dator gero, eredu horiek ez direlako errealak, eta agindurikoa ere ez delako bete: gazteei esan zaie ordaina jasoko zutela Masterra eginez gero, hizkuntzak ikasita, malgu izanda, mugitzeko prest egonez gero... Baina lanik ez dutela esan zaie ondoren. Egindako ahaleginek ordainik ez dutela ikusiz gero, jendearen frustrazioak emaitza arriskutsuak eragin ditzakeela ohartarazi du Xabier Aierdi soziologoak: nazismoak sortzea erdi-mailako klaseetan, etorkin eta behartsuen aurkako jarrerak... Solaskideek diote ostalari-tzan, arrantzan edo eraikuntzan etorkin asko ikusten dela, baina garai batean bertakoek hartu nahi izan ez zituzten enpleguak direla eta hortaz ez dagokigula orain kexatzea, esku-bide berberak baitira denontzat. Hori bai, bertako baldintzekin egin behar lukete lan, gutxiagoren truke jardutea euren eta denon kalterako baita. Amagoia Ruizen hitzetan, etxe garbitzaile ugari entzun die kanpoko jendea prest dagoela oso gutxiatik lan egiteko, eta ezin dutela horrekin lehiatu.

Bizitzeko eskubidea, soldataren arabera?

Pentsamoldea aldatzeko urtetako lana beharko bada ere, zibilizazio berria aurreikusten du Xabier Aierdi soziologoak. Prekarietatea bi modura uler genezake: batetik, baldintza ekonomikoetan pentsatuz, gaur egungo gizarte kapitalistaren eskeman. Jendea lekuz kanpo dago: soldatapeko izan behar badut bizitzeko eskubidea izateko eta kontsumitzaile izateko –kontsumitzen ez duena ez delako ezer–, zer egin soldatarik ez dudanean edo oso merke lan egiten badut? Bestetik, prekarietate estruktural hori eszenatoki berri bilakatu dezakegu, des-hazkundetik eta austeritatetik abiatuta bizitzaren duintasuna, bizitzeko eskubidea beste zerbaitetan bilatu, soldatan eta kontsumitzeko gaitasunean jarri beharrean. Orain arte lanean aurkitu du gizakiak oinarria, baina dagoeneko ez bada prozesu

produktiboan jende gehiago behar, non jarri zimen-
duak?

Menpekotasun ekonomizistak bultzatzen gaitu itxarotera krisia noiz bukatuko, lehengo berdinerara bueltatzeko. Baina hori amaitu dela dio Aierdik, ekonomiak ezin duela etorkizunean munduaren zentro izan, giza duintasuna beste nonbait bilatu behar dela, ekonomikoa ez den gizarte harremanetarako egitura ezberdina nagusitu behar dela. Lanaren banaketa, denboraren

erabilera lan sozialerako, soldata unibertsal bermatua... formula baliagarriak izan daitezke. Baina egoera berriari zein formula ekonomikorekin erantzun erabakitzeke, aurretik ezinbestekoa deritzo gogoe-ta kultural antropologikoa hedatzea, bizimodu duina izateko eskubideari eta hori bermatzeko neurriei buruz.



Urriari Baionan egin ziren manifestazioetako bat. Urriaren 19an, 19.000 lagunek hartu zuten parte.

Kontua zera da, hemengo geroz eta herritar gehiagok onartzen dituela eskaintako kondizio tamalgarriak. Lehia handia da, eta unibertsitatean jada sumatzen dela dio Zabaletak, onenak izateko lasterketa bizian. Giro hobea du Kerejetak lanbide heziketan, eta lehiakortasuna edo elkartasuna, norberaren arabera dela adierazi du San Sebastianek: Ingeniaritza ikasi zuenean ere, batzuk lehiakorragoak ziren, beste batzuek elkarri laguntzen zioten, eta bakoitzaren esku zegoen zein hautu egin.

Mobilizazioak noizko?

Protestak ugaritu egiten dira hainbat herraldetan. Hemen ere, Baionan inoizko manifestaziorik handiena egin zen pasa den urrian (19.000 lagun), erretreten erreformaren aurka. Hego Euskal Herrian aldiz, ez da apenas mugimendurik ikusi. Oraindik jendeak dirua baduela diote, iritsiko ote dira protestak langabezi laguntzak bukatzean –kontuan hartuta ondorengo subsidioa kendu duela Espainiako Gobernuak–, etxebizitza ordaindu ezina orokortzean...? Agian muturrera heldu beharko gara, zerbait eskandalosoa jazo beharko da, jendea mugitzeko, dio Kerejetak. Ingalaterran, Frantzia, Italia... atera dira kalera, eta gurean dena irensten helduagoen kritikatutik Zabaletak: ulertu dezake helduagoen artean, galtzeko izan dezaketenagatik, baina tristea

Ekonomiatik datorren eraso politikarekin nahasten da, bankariak izan beharrean errudunak, gobernuen erabaki txarrak dira kaltea, eta jarrera antidemokratikoak sor daitezke

iruditzen zaio jende gaztea geldirik ikustea, euren etorkizuna bermatzeko borrokatu beharrean. “Pasibitate-rako hezten gaituzte, eta erreakzioa hori da, ‘dagoena eta kito’. Gure burua gehiago maitatu beharko genuke, bizi guztirako menpeko eta morroi izan nahi ez badugu”.

Maparik ez daukagu ordea, egoeraren eta errudunen diagnostiko zehatza falta zaigu, Aierdiren ustez, eta etsaia zein den ez dakigulako ez gara mobilizatzen. Dioenez, ekonomiatik datorren eraso politikarekin nahasten da, bankariak izan beharrean errudunak, gobernuen erabaki txarrak dira kaltea, eta jarrera populistak eta antidemokratikoak jotzeko arriskua dago. Poztu egiten gara funtzionarioei soldata jaisten dietenean, txinatarrei botatzen diegu errua... “Baina bakoitzak bere ortuan pentsatzea ez da soluzioa, globalean pentsatu, erabaki eta ekin behar da”.

Situazio ezkorretan, dena den, ezin itxaropena galdu. Edozein lanetan jardunda ere, azken helburua ahazteko asmorik ez du Ruizek, eta irakasle izateko pres-tatzen jarraituko du. San Sebastianek eta Kerejetak espero dute moduluak eta ondorengo praktikek fruituak ematea, eta Zabaleta ez du krisiak zapuztuko: “Errealitate onartu behar duzu, jakin nolakoa den eta errealista izan, baina ez konformatu. Pessimismoarekin ez da ezer lortzen eta aurrera egin behar da. Ez bazaizu errealitatea gustatzen, aldatzen saiatu”. ■

Mikel Markez

«Berriro gitarra hartu eta lubakira jaisteko gogoz nago»

Gitarrak berriro diotsa: erabil nazazu.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zure alaba zaharrenak orain duen adinarekin hasi zinen jendaurrean kantatzen.

Bai, eta arraroa egiten zait, batez ere, ikusten dudalako gure kezkak oso bestelakoak zirela: guk Gustavo Adolfo Bécquerren *Rimas y leyendas* irakurtzen genuen eta aho-zabalik gertzen ginen, eta *El Quijote*... Eta euskaraz, ba, begira, Pako Aristiren *Kcappo* eta Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*... Existenzialismoaz hitz egiten genuen, bertsoak idazten genituen... Eta halakorik ez dut ikusten gaur eguneko gazteengan, gehiago txunditzen ditu ikus-entzunezkoak, inpaktoak. Bakoitzak bere garaia dagokion bezala bizi behar du, baina ez dira hainbeste urte pasa, eta guk genituen kezka estetikoak ez dira orain gizartearen gailentzen direnak. Halere, gizakiak betitik izan dituen kezkak berdinak izaten jarraitzen dute, maitasunaren beharra, gizartearen norberak duen lekua... Horien inguruan kantatzen jarraituko dugu, bai guk eta berdin orain kantak egiten hasten diren gazteek ere. Esango nuke ia-ia ez dagoela beste gairik.

16 urterekin hasi zinen jendaurrean jotzen, 18rekin grabatu zenuen lehen maketa, 20rekin lehen diskoa, 23rekin izan zenuen lehen haurra... Bizitzeko presa?

Oso denbora gutxian gauza asko egin nituela sentitzen dut. 15 urtetik 30 arte gauza asko egin nituen oso denbora gutxian. Gero, 30etik 40ra askoz gutxiago egin ditut, edo modu pausatua goan behintzat. Momentu bakoitza topera bizi izan nuela sentitzen dut, eta momentu bakoitzak ase egin ninduela. 1990-91-92 urteetan 200 kantaldi egin nituen urtean, etengabeak izan ziren agerpen publikoak. Gerra zen. Batetik bestera ibili nintzen eta soziologiako ikastaro trinko bat egin nuen: jende asko ezagutu nuen, oso diferen-

tea, kantatu nuen Zuberoako Altxain edo Iruin, Bizkaiko Muskizen, Nafarroako Berroetan... Joaten nintzen leku bakoitzean jendea zain neukan, kantatzen nuen eta parrandara eramaten ninduten, eta gosaltzera, eta norbaiten etxera lotara... Maitasun handia jaso nuen. Hori askotan egin nuen oso denbora gutxian. Eta 23 urterako, batetik, parrandaz eta alkoholaz eta martxa hartaz nekatzen hasia nengoen eta haur bat izatea egokia iruditu zitzaidan momentu hartan. Ez zitzaidan iruditzen ezer moztzen zuenik, alderantziz, ia ia salbatu egin ninduela esan dezaket. Bestela, autodestruktiborantz joango nintzen! Eta orain, aldiz, berriro garai haietara itzultzeko gogoia sentitzen dut, haurrak koxkortu dira, nik 40 urte egingo ditut urrian, bizi izan dut etapa bat eta badaukat gogoia berriro gitarra hartu eta lubakira jaisteko.

Zure kanturik ezagunenak 16-17 urterekin idatzitako haiek dira. Nola daramazu hori?

Bi aurpegi ditu. Batetik, badirudi kanta haiek itzal egiten diotela gerora egiten duzun guztia-ri. Pentsa dezakezu, aizu, geroztik egin ditut kanta hobeak edo helduagoak, eta jendeak ez ditu baloratzen. Batzuetan kanta haiek beste lan guztiari itzal egiten diotela senti dezakezu, eta amorratu mundu guztiak *Zure begiek* eska-

Nortasun agiria

Mikel Markez 1971ko urriaren 4an sortu zen Erreterian. Hamabost urterekin hasi zen gitarra jotzen eta lehen kantuak egiten, jendaurreko saioak eskainiz. 1989an grabatu zuen lehen maketa, 1991n lehen diskoa (...*eta etorri egin zait*...) eta ordutik, beste zazpi disko eta zuzeneko hainbat ikuskizun sortu ditu Pako Aristi idazlearekin batera. Kantaldietan bakarrik ez, uhinetan ere entzun dugu haren ahotsa, Herri Irratian esatari aritu baita hamasei urtez, baina, batzuetan, isildu eta Taroteko kartei begira jartzen da, haiek hitz egin diezaioten.



tzen dizulako. Baina hori oso pentsamendu egoista dela uste dut, geure zilborretik abiatzen delako: beste guztiek nik egiten dudana nik nahi dudana bezala baloratzea nahi dut, halako zerbait. Baina kanta batzuk zuk gaur egiten duzuna baino inportanteagoak badira... esaten den bezala, izorrai! Gaur egun kantak gu baino inportanteagoak direla sentitzen dut. Gu iragankorra goak gure kantak baino, eta ez dugula haien gainetik jartzetik. Nor gara gu kanta batek itzal egiten digula esateko? Beraz, marmarrean aritu beharrean kanta inportante gehiago egiten saiatu behar ginatke, eta egin dezatela beren bidea. Juan Karlos Perezek ere gauza bera kontatzen du *La teila-turekin*, azkenean kokoteraino bukatu zuela. Ez baita beste kanta batzuei itzal egiten diela bakarrik, pertsonalki ere ez da erraza 16-17 urterekin idatzi zenuen hura defendatzea; agian, dagoeneko ez zara harekin identifikatzen, baina egoistak ez bagara distantzia hartu behar dugu kantezik. Nik distantzia luzetik jotzen ditut nire zenbait kanta, osotasun bat balira bezala, dagoeneko ez dut hitzez hitz entzuten kantak esaten duena, ez dut pentsatzen ados nagoen ala ez, kanta pack bat bezala entzuten dut, osotasun bat bezala, kolore bat bezala. Bere horretan hartzen duzu kanta, eta kolore hori kantatzen duzu. Nik ez nioke eskurik sartuko kanta zahar bati, ez du zentzurik. Jakina, oraingo perspektibatik beste kanta bat egingo nukeen, baina ez da hori kontua: inportantea kanta baita, ez jendea nahi orain zer egingo nukeen azaltzea.

Euskal Rock Erradikalaren garaia bete-betean harrapatu zintuen. Eragin zizun mugimendu hark?

Izugarri eragin zidan. Hasi eta buka kanta ditzaket abesti haiek: *“escupe siempre que puedas, escupe con acierto, en todos los lugares que pisan los modernos. Escupe siempre que puedas, si no vete a la mierda...”* tatuatuta daukat. La Polla Records, Escorbuto, Hertzainak, Cicatriz... Horiak denak izan ziren biberioiarekin batera hartu nituenak, Benito Lertxundi, Silvio Rodriguez, Atahualpa Yupanqui edo *Concierto Rocó para violonchelo y orquesta* bezala. Gure etxean, suertez, denetik entzun izan da: anaia batek bat, beste anaia beste, gurasoek beste... Belakia izan naiz, baina rock erradikala zurrupatu nuen izugarri. Erreterriakoa naiz! Hango alamedan poteatzen nuen, nire bizitza soziala han zegoen, nola ez zidan eragingo?

Zuk, ordea, kantautoreen bideari eutsi zenion. Zergatik?

Garai hartan sortu nezakeen rock talde bat ere, izan zitekeen, baina ez zen izan. Agian, gitarra elektrikoa ikasten hasi izan banintz,

Erotiko

“Nekatu egin nintzen kantautore erromantikoaren figurarekin, ni ez bainintzen hori bakarrik. Gogoan dut kanta erotikoen diskoa egin nuenean zenbait jenderi oso gogorra egin zitzaioela. Maite izan baduzu kantari erromantiko bat eta bat-batean, abisatu gabe kanta erotikoen hasten bada... Batzuk deskolokatuta geratu ziren, eta ikusi nituen kantaldietan altxa eta martxa egin zutenak ere. Nik apropos egindako mugimendua izan zen, aldaketa bat eman nahi nion nire ibilbideari, beste gauza batzuk ere egin nahi nituen kanta erromantikoez gain”.

seguru asko, estetika horrek bestera eramango nindukeen, baina gure etxean gitarra espainola bat zegoen, eta harekin hasi nintzen 15 urterekin. Ez zen hautu kontzientea izan, beti gertatzen den bezala, inguruak eta momentu batean egindako aukerek bide batetik eramaten zaituzte. Gure etxean gitarra elektriko bat eta anplifikadore bat egon izan balira rock talde bat egingo nuen, baina gitarra espainola bat zegoen. Eta niri asko gustatzen zitzaidan Silvio Rodriguezen estetika hori, eta ateratzen nituen Xabier Leteren *Langile baten seme...* Eta kanta horiekin ikasi nuen nik. Benito Lertxundiren *Atarratzerekin* ikasi nuen sol maior, do maior eta re maior jotzen.

Zure erreferentzia musikalak Ez Dok Amairun baino gehiago kantautore hegoamerikarretan ez ote dauden...

Ez Dok Amairuk eragin dit nire kultura berekoak direlako, nire hizkuntza berean kantatzen dutelako. Ez Dok Amairu eskola bat izan zen, oraindik agortu gabe dagoena. Benitorekin askotan komentatu dut ni ere, neurri batean, Ez Dok Amairuko parte sentitzen naizela, Ez Dok Amairu ez baitzen momentu bat eta talde konkretu bat bakarrik izan, geroztik etorri garen guztiok ere haiek sortu zuten bidetik goaz. Haiek egon izan ez balira guk orain ez genuke egiten duguna egingo. Kuban ere La Nueva Trova esaten zitzaion Silvio eta hauei, eta ondoren egon zen La Novísima Trova, eta gero... Belaunaldi berriak ildo berean kokatu dira, eta nire kasuan ere hala sentitzen naiz. Hauek, alde batetik, herri kantak landu zituzten; bestetik, poeta garaikideen testuak musikatu zituzten: Artzerenak, Arestirenak... Eta Ez Dok Amairukoek jorratu zuten hirugarren bidea esperimentazioarena izan zen: gauza bereziak egin zituzten, emankizun arraroak, txalaparta ilunpetatik atera zuten. Geroztik etorri garen guztiok hori dena modu natural xamarrean uztartu dugu gure kantagintzan. Kanpora begiratu gero, hori ez da hain arrunta. Esaterako, Joaquín Sabinak bere kantak soilik kantatzen ditu, ez ditu herri kantak kantatzen. Kanpoan, ildoak askoz ere bereziagoak izaten dira, kultura egin batetik abiatzen direlako, noski. Espezializazioa askoz ere handiago da, baina guk nahasketa egin dugu, denok, geroztik etorri garen guztiok. Eta musika kubatarak, venezuelarrak, argentinarak... berriz, ezkerreko giro soziala ekartzen zuten. Estetika bat, mundu ikuskera bat, munduan eta kantagintzan kokatzeko era bat: kantagintza zertarako, nola, zergatik... Horrekin asko identifikatu nintzen, eta identifikatzen naiz, oraindik ere.



Kantautore prestigiodunenak Ez Dok Amairuko haiek dira oraindik ere, hilak eta biziak. Ondorengo belaunaldietakook nola kokatzen zarete kantagintzan?

Nahiz eta gazte zenbaitek gu ez gaituen eza-gutu ere egiten, gure kanta batzuk ezagutzen dituzte, eta hori da inportanteena. Transmisioan lan handia dago egiteko. Baina oraingo gazteek guk baino are zailago dute, CDaren eta soporte fonografikoaren zabalkunderako zailtasun handiak daude. Gazte batek bere lana ezagutarazteko zailtasun handiagoak ditu gaur guk gure garaian izan genituenak baino. Nik lehenengo diskoa 91n egin nuen, eta urte hartan euskaraz hamar disko aterako ziren gehienez. Oihartzun handiagoa zeukan disko bakoitzak, eta orduko tiradak milaka alekoak izaten ziren, jakina zelako hori salduko zela. Baina zailtzen joan da. Adibidez, azken kantu txapelketan izan nintzen ikusle, eta Hernaniko Josune Marinek irabazi zuen. Neska hori nik bere adina neukanean bezala ikusten dut: kanta egiten, gitarrarekin bere sentimenduak azaltzen. Baina badakit askoz zailago izango duela gaur egun bide egitea. Berak disko bat ateratzen badu, berearekin batera 100 disko gehiago aterako dira, eta, nola egin lekutxo bat? Guk zortea dugu, izentxo badugu eta egiten dugunak gutxieneko oihartzuna izaten du beti. Baina zerbait artikulatu behar litzateke kantagintza berria sustatzeko, behar baititugu euskal kantari berriak. Guretzat ere aldatu dira garaiak, eta disko bakoitza selektibitatea da. 90eko

hamarkadan goia jo izanak ez du esan nahi orain edo hemendik hamar urtera kanta egiteki eta kantatzetik bizi ahalko garenik. Gu beti gaude selektibitatea egiten, hori da tokatu zaigun errealitatea, eta horrek jarrarazi behar dizkigu pilak. Egiten dugun disko bakoitza ezin da disko erratu bat izan, hor jarraitu ahal izateko aldiro egin behar ditugu gauzak ongi. Baina niri asko laguntzen dit bizpauru kanta izugarri ezagun izateak belaunaldi berrietara iristeko. Beraz, alde horretatik gu egoera pribilegiatuan gaude, baina ezin dugu lo hartu.

“Hasi nintzenetik seigarren diskora arte ia kasik etenik gabe jardun izan dut. Momentu batean nire burua galduta ikusi nuen. Ez nekien zergatik, norentzat, nola ari nintzen kantuan”. Zer gertatu zen?

Nekea izan zen. 99an ez nuen gehiago jendearen aurrera ateratzeko gogorik. Sentitzen nuen ez neukala zeresanik, arnasik gabe sentitzen nintzen. Eta pentsatu nuen utzi egingo nuela, denboraldi baterako, berriz indartu arte, eta beharrezkoa bazen, betiko. Baina ez nuen eszenatokira igo eta jendeari gauzak esateko gogorik sentitzen. Galduta sentitu nintzen. Ez nekien norentzat, ez nekien zergatik, ez nekien nola... Zentzu guztietan izan nuen krisia. Bospasei urte igaro nituen konzerturik eman gabe, eta berriro etorri zitzaidan kantuak egiteko gogoia, berriz hasi nintzen, Pako Aristirekin emanaldi berri bat prestatu nuen, eta hor berreskuratu nuen



AZKEN HITZA

Mikel Markezen Tarota

“Betidanik izan naiz mundu horren zalea. Beti jarraitu izan ditut errealitate paraleloei buruzko irratsaioak, erregresioei buruzko Weissen liburuak, Carlos Castanedaren liburuak... Baina muturra sartzen orain bospasei urte hasi nintzen: Tarotaren inguruko ikastaro batzuk egin nituen, erregresio batzuk ere bai. Geroztik hor ditut kartak, eta tarteka lagunei botatzen dizkiet, lagun minei bakarrik. Uste dut badudala intuizio pixka bat, eta normalean asmatzen dut”.

puntua eta gustua, eta orain onen-onenean nago, indarrez eta gogoz beteta. Dena izan zen nekearen ondorio, jendearen aurrean etengabe egoteak sortzen duen nekearen eta leku guztietara joatearen nekearen ondorio. Baina pixka bat suspertu naizen hontan berriz ere gogo biziz nago.

Noiz sortu zen Pako Aristi eta bien arteko sinbiosia?

Pako horrela ezagutu nuen, zu bezala elkar-riketa bat egitera etorrira. Aurreneko make-
ta kaleratu berria nintzen ni, hamazazpi urte nituen, eta Pakok *El Diario Vascorako* elkar-riketak egiten zituen orduan, handik etorri zen. Nik ordurako irakurriak nituen bere liburuak, eta nire idazle gogokoenetakoa elkarriketa egitera etortzea zerbait handia zen. Hala ezagutu genuen elkar, eta geroztik mila lekutan izan gara elkarrekin, bidaiatu egiten dugu Argentinara, Venezuelara, Kubara... 200 emanalditik gora egin ditugu elkarrekin. Adiskide minak gara gaur egun.

Maitasun kantetatik kanta erotikoetara eta handik kritika sozialera pasa zinela esan daiteke. Noiz hasi zen zure abestietan barne mundua errealitate sozialarekin nahasten?

Hasieratik bazen kezka, baina 18 urterekin balantza barne mundura okertzen zen. Pixka bat asentatzean, burua lige-kontuetatik pixka bat apartatzean begirada zabaldu nuen eta beste kezka batzuk gailendu zitzaizkidan. Ze ligatzea oso inportantea izan da niretzat! Gure kanten bidez ligatu dugu, eta ez dut gezurrik esango, helburuetako bat zen. Badakigu bulkada sexualak gure bizitzan izan duen eta daukan garrantzia eta, 18 urterekin, zer egingo duzu ba! Orduan helburuetako bat zen eta laguntzen zuten maitasun kanteak, baina gero bizitzak beste leku batzuetatik eramaten zaitu eta errealitate sozialak pisu handiagoa hartzen du. Ironikoki edo karikatura eginda, gizon serio bilakatzeak halako gauzak ditu.

Mundu erromantiko eta sozialari mundu espirituala ere batzen zaio, beraz, zure baitan.

Ni ez naiz inoiz elizara joan izan, ez naiz erlijio zalea, ez dut erlijioetan sinesten, baina sinesten dut espirituan, gure haragia traszenditzen duen zerbaitetan. Denok bat garela sentitzen dut, uste dut ni bat naizela kalean dabilen zakurrarekin, zurekin edo munduaren beste puntan dagoen eskimal batekin. Eta zergatik sentitzen naizen bat? Ba, bada-goelako, nire ustez, gure gainetik dagoen inteligentzia, arima, energia... Nahi duzun bezala deitu, baina bada zerbait lotzen gaituena. Mundu honetan bueltaka gabiltzala uste dut, orain euskal kantari formarekin eta hurrena, auskalo, baina hemen bueltaka ari gara, ikasten.

Aldian behin afaltzeko batzen omen zarete Benito lertxundi, Pako Aristi eta hiruok. Afari horiek zenbat dute erromantikotik, sozialetik eta espiritualetik?

Gauza askotaz aritzen gara afari horietan. Asko hitz egiten dugu euskal gatazkaz, gure euskal mundu honen aterabide eta sarbideei buruz; erlijioari eta transzendentziari buruz, eta batzuetan kartak botatzen dizkiet; sexuari buruz; arteari eta sorkuntzari buruz. Baina gauza ludikoei buruz ere aritzen gara, ez pentsa. Berdin hitz egiten dugu futbolaz edo arraunaz.

Orain zertan ari zara?

Kanta berriak sortzen ari naiz eta ezeren okerrik ez bada, aurtengo udazkenerako disko berria egin nahi dut gitarra eta ahotsarekin soilik. Eta hortxe ari naiz, kanta mordoska bat dauzkatz, ekainera arte gehiago egin nahi nituzke, eta diskoa irailean edo urrian aterako dut, 40ak betetzearekin batera. Eta ondoren aritu egin nahi dut, berriro gitarrarekin bakarrik, kantautore moduan, inongo ezkuturik gabe, lubakian, eta horretan ariko naiz 2011 amaieran eta 2012 osoan. ■

2017

BERTSO EGUNA

Urtarrilaren 29an
Donostian

12:00 - KALEZ KALE Donostiako Alde Zaharrean

18:00 - EKITALDI NAGUSIA Kursaleko Areto Nagusian

21:00 - AFARIA eta FESTA Kursaleko NiNeu Jatetxean



Antolatzaileak:



donostia**kultura**.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

Babeslea:



Laguntzaileak:



«Sortu genuen hura azpeitiarrek beren festa gisa bizitzea zoragarria da»

Baltasar Iglesiasekin batera, Cecilio Arabaolaza da Azpeitiko Danborradaren sortzailea. Azpeitian lanean ari ziren bi apaiz donostiarrek, herriminez, Urola bailarako herrira eraman nahi izan zuten beraien ohitura.

Testua eta argazkia:
IRATI SARASUA

Nola sortu zitzaizuen Azpeitian danborrada egiteko ideia?

1957an Baltasar Iglesias eta ni Azpeitiko apaizak ginen. Biok donostiarrak izanik, danborrada ilusio handiz bizi izan dugu beti. Azpeitiko patroia Soreasuko San Sebastian denez, aitzakia paregabea genuen gure ideia ezagutarazteko. Garai hartan Azpeitiko Oargi gazte taldearekin aritzen nintzen elizako gauzeekin lanean. Beraiei proposatu nien ekimena, begi onez hartu zuten eta lanari ekin genion hogeitau hurrekin batera. 1957an jendeak apaizoi kasu egiten zigun ia beti.

Nola atera zenuten aurrera proiektua?

Lehenik eta behin, ez genuen materiala erosteko dirurik eta ezin ginen inorengana diru eske joan, herritarrek ezagutzen ez zuten horri ez ziotelako dirurik emango. Hala, lehenengo urtean beharrezko materiala beste herri batzuetako elkarteek utzi ziguten: Debako talde batek jantziak eta Irungo Atsegina elkarteak danborrak. Bi heldu eta bost mutiko joan ginen Irunera, eta elkarteko gizonak aho zabalik utzi genituen: harrigarria egin zitzaien trenean bost haur eta bi heldu hainbeste danborrekin irudikatzea. Azpeitiarrei asko gustatu zitzaien eta ordutik aurrera gauzak erraztu egin ziren; jendeak zekien gauzetan lagundu zigun. Gerora, material guztia geurea izatea izan genuen helburu, festa benetan geurea egiteko.



Arabaolaza, Donostiako Sarriegi plazan.

Nola egiten zenituzten hasierako entseguak?

Tren geltokiaren atzealdean egiten genituen jendea ez ohartzeko. Izan ere, sorpresa eman nahi genuen, inork ez zuen antolatzen ari ginenaren berri, haurren gurasoek ere ez zuten gertatzera zihoana espero. Entseguetan ez genuen musika jartzeko aparailurik eta abestiak nik kantatzen nituen. Gerora, urtarilaren 19an ateratzeko Azpeitiko Musika Bandarekin hitz egin genuen, bidean gurekin batera jotzeko. Beraiekin egin genuen entsegu orokorrean ohartu ginen lana paregabea zela.

Hasiera haietan musikariak gurekin etortzen ziren bidean; hori gerora aldatu egin da. Gaur egun herriko plazan bakarrik jotzen dute musikariek, eta kaleetan bozgorailuen bidez entzuten dute danbor-joleek.

Nolakoa izan zen 1957ko urtarrilaren 19 hori?

Lehenengo urtea saiakera bat izan zen, San Sebastian bezperan atera ginen. Ez genion inori jakinarazi, ez ginen prentsan azaldu, Udalari ez genion ezer esan... Egia esan, ez zitzaidan burutik pasa ere egin inolako baimenik eskatzea, eta inori ezer esan gabe irten ginen Azpeitiko kaleetan barrena. Kanean zebilen jendearentzat harrigarria izan zen: hoge mutiko danborra jotzen eta musika banda elkarrekin ikustea.

Egun euritsua zen, baina hartutako lanaren ostean ez genuen atzera egin nahi izan. Jendeak ilusioz hartu zuen gauza polita zelako, 20:00etan atera ginen eta jende asko zegoen kanean. Inon gelditu gabe pasieran aritu ginen hiru kantu joz behin eta berriro. Guztiak Donostiako Danborradatik hartuak ziren: San Sebastian Martxa, Iriarena eta Diana.

Zein da Azpeitiko Danborrada gaur egun arte iraun izanaren sekretua?

Lan gogorra egin genuen denok, eta esfortzua izugarria izan zen. Bertakoen inplikazioa izan zen gerora danborradaren arrakastaren oinarria. Azpeitiko herriak duen indar, gaitasun eta inplikazioa izan dira egitasmoa aurrera atera dutenak. Hori izan ez bagenu ziur nago gure nahia ideia hutsean geratuko zela. Ilusioarekin eta lana egiteko gogoarekin edo zer lor daiteke.

Bigarren urtean gauzak asko aldatu al ziren?

Bai, azpeitiarrei ikusitakoa gustatu zitzairen eta gehiagok parte hartu zuten edo laguntza

"Entseguak ezkutuan egin genituen, jendea ez ohartzeko. Sorpresa eman nahi genuen eta inork ez zuen antolatzen ari ginenaren berri, ezta haurren gurasoek ere"

eskaini nahi izan ziguten. Ilusioa pixkanaka zabaltzen hasi zen. Urte hartan ere ez genuen dirurik izan, baina herritarrek dena jarri zuten euren aldetik. Karroza, erregin eta zaldiekin atera ginen urte hartan eta deigarria izan zen, jada ez ginen danborra jotzen zuten hoge haurrekin soilik kanean zihoazen bi apaiz, danborrada sortzen ari zen. Dena den, bigarren urtean ere jantziak eta danborrak alokatu egin genituen, jantziak erostea urte gutxi- ren buruan iritsi zen.

Ekitaldia egunez aldatu genuen eta bezperan egin beharrean, San Sebastian egunean eguerdiko 12:00etan irten ginen kalera; udaletxera joateko gonbita izan genuen.

Noiz hasi ziren helduak parte hartzen?

1959an. Bi talde atera ziren: Oargi taldea danborrekin eta

Peña Taurina barrilekin. Urte hori giltzarri izan zen danborradaren bilakaeran, azken finean, orduan bai, herri osoa festaren parte izan baitzen.

Geroztik zer aldatu da?

Kantu gehiago gehitu dira: hasieran, Raimundo Sarriegik Donostiako Danborradarako asmatutako kantuak jotzen genituen; gerora, Jose Luis Francesena Azpeitiko parrokiako organo-jole eta Herriko Musika Bandako zuzendari ohiak asmatutako lau kantu ere sartu genituen errepertorioan. Beraz, gaur egun Azpeitiko Danborradan bai Donostiako eta bai bertako kantuak jotzen dira.

Aurten 27 taldek eta 1.000 pertsona inguruk parte hartuko dutela jakin dut eta horrek izugarri poztu nau. Hainbeste talde izateak, ordea, arazoa sortu du, guztiak ez baitira plazan sartzen. Baina sortu genuen hura azpeitiarrek beren festa gisa bizi dutela ikustea zoragarria da. ■

MUSIKA BULEGO INTEGRALA

baga-biga musika ideiak
 telef. 618 072 076 / 026
 www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

Hau dena fotokopiatu nahi nuke

Bakoitza bere etxean, eta telebista guztienan. Tira. Hamaika Telebistan gabon gaueko mezua emateko arduradun Pirritx, Porrotx eta Marimotots izan ziren. Saioa 21:00etan hasi zen, eta gainontzeko telebista kateetan Espainiako Erregearen gabon mezuaren “alternatiba” moduan erakutsi omen ziguten. Radio Euskadiren eskutik Euskalduna Jauregian egindako Euskal Herriko Lur Maitea kantaldi berezia eskaini zuen ETB1ek Gabon Gauean. Erramun Martikorena, Naia Robles, Txomin eta Urbil Artola, Gorka eta Natxo Knörr, Pantxoa eta Peio, Jean Mixel Bedaxagar, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Urko, Anje Duhalde eta Niko Etxarten ahotsean, 70 eta 80ko hamarkadeetako abesti eta abeslari ezagunen errepasoa eskaintzen zuen Bilboko Euskalduna Jauregian grabatutako kontzertuak. Radio Euskadi eta Elkar argitaletxeak elkarlanean egindako *Euskal Herriko Lur Maitea* bilduma lanaren aurkezpena zen Gabon Gauean Euskal Telebistaren lehen katean ikusgai izan genuena. Ordu berdinean, TVE 1ek Rafael eta Rocio Durcal kantariei eskaini zien gaua. Baina, ez al du sekula santan errukirik gurekin izango trantsizio demokratikoak? Hain ezbehar handia al da, azken batean, diktadurarik gabe bizitzea? Ez dut gehiago sinesten etorkizuneari, iraganeko kontua da! Hertzainak 1985ean kaleratu zuen “Hau dena aldatu nahi nuke” amets gaizto bat baino ez da, bihotza, 2011 nirea. Ondo dakigu gauzak ez direla aldatuko. Onera ez behintzat. Bizitzaren kostua %0,7 igo zen azaroan EAEn eta urte arteko tasak %4,2ko igoera izan zuen. Oinarritzko produktuei dagokienez, iaz elikagaiek eta edariei %7ko igoera izan zuten azaroa bitartean. Azken sei hilabeteetan zenbait pro-

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

dukturen prezioa “bikoiztu” egin da. Bihartik aurrera argindarra %9,8 garestiagoa izango da. Lau urtean argindarraren prezioa ia %50 igo da Hego Euskal Herrian. Gaurtik aurrera, gas naturala ere garestiagoa izango da erabiltzaileentzat. Butano bonbonak ere salneurri berria izango du bihartik

aurrera, 40 zentimo gehiago. Trenetaz eta autobusez bidaiatzea ere garestiagoa izango da. Zein dirurekin ordainduko dugu? Lotsagarri da. Bestela esanda, lotsagarri... Familia kristauaren alde “otoitzean” eta aita santuaren bedekazioarekin, Europako familiaren egoera “ona ez” dela eta “txarrera doala” adierazi zuen Rouco Varela Madrilgo artzapezpikuak, dibortzioa, gayen arteko ezkontzaren onarpena, krisia eta langabezia errazten duten legezko neurriekin. Eta familien meza Errege Magoen agerraldiarekin amaitu zen. Mundu alu batean bizi gara. Gaur berriro ere, gaur berriro ere, gaur berriro ere... Entzuna eta ikusia daukagu hori guztia; hori guztia zaharra da, hutsala, alferrikakoa, batez ere alferrikakoa. Eta bitxia da ikustea zenbat jende uste duen bizitza berri bati ekiten diogula urte berriaren hasierarekin. Baina nekata, aspertuta, errepikapenaren errepikapen diren betiko esperientzietara lotuta gaude, besterik ez, burgestuta, haragiaren plazer txikiarenari uko egin gabe, esanez bezala: “Lasai nago hilda nagoenetik, patxada handiagoz hartzen dut arnasa”. Halako ordutan, halako errepikapena. Su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra aldarrikatu du ETAk. Adierazpena ez dela “txarra” esan arren, “ETAk orain artekoari” eutsi diola gaineratu du Espainiako presidenteorde, bozeramaile eta Barne ministro Alfredo Perez Rubalcabak. Eta oharra egin du: “Iragana ez da itzuliko”. Eta ez da argazkien fotokopiarik onartuko. ■



TVE 1ek Rafael eta Rocio Durcal kantariei eskaini zien gaua. Baina, ez al du sekula santan errukirik gurekin izango trantsizio demokratikoak? Hain ezbehar handia al da, azken batean, diktadurarik gabe bizitzea?



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Paraliturgia

Zertaz ari naizen ulertzeko, hitza esplikatu beharko zioagu jendeari, ezta, Joxan?

(Joxan Ormazabal zenak sarritan aipatzen zuen “paraliturgia”, adierazteko era guztietako ospakizun, ekitaldi eta zeremonietan izaten zen protokoloa, bateko hitzaldi, besteko bertso edo dantzari, txalaparta eta txistulari. Hitzak agerian du adar-soinu ironikoa, eta balio du, besteak beste, Ormazabalen nortasun aberatsa sumatzen laguntzeko: onkote, alai, bihotz handiko, umezale... horrela marraztu dugu eta egia da halakoxea zela; baina bazituen beste zenbait alderdi ere: tristura lanbrotsu melankoliko bat, baseritarraren eszeptizismo disimulatua, mikatz punttu bat inoiz; inor ez baita pieza bakarreko izakia).

Ez diat galdetuko zer moduz habilen alde-aldi horretan, egoskor segitzen diat neure sinesgabezia. Alde-aldi honetakook, berriz, asko akordatzen gaituk hirekin. Bakarka gehienetan, hire hitz, jarrera, barreak gogora ekarrita; lagunartean ere bai sarri, hire txiste, esaera eta pasadizoak elkarri komentatuta; eta talde handiagoe-tan ere bai tarteka, bateko eta besteko omenaldiak direla eta.

Hainbeste paraliturgia sortu behar huela jakin



DANI BLANCO

« Ez diat galdetuko zer moduz habilen alde-aldi horretan, egoskor segitzen diat neure sinesgabezia. Alde-aldi honetakook, berriz, asko akordatzen gaituk hirekin »

bahu, igual ez huen ezegiteko hura egingo, hi beti isilka eta inori trabarik sortu gabe ibiltzeko zalea izaki. Joan den udazkenean mendira egin genian txangoa, hire senide, lankide eta beste lagun batzuek, hire amaren eta heure erraustak dautzan bazter zoragarri horretara; hantxe egin genian antzerki txiki bat, bildutako bakoitzak hire testu-txatal bat

irakurtzen zuela, eta gero denak bazkaltzera; hiri ere gustatuko zitzaian, ikusterik izan bahu.

Abenduan, berriz, badakik nola estimatzen hauten Seguran, bada, aurtengo beren liburu azokatxoaren inaugurazioan ere hitz batzuk egin behar, hire oroigarri. Ez hadi izutu, laburra eta umoretsua izan zuan eta.

Orain, aldiz, menditik hartutako harri-potor bat jarri nahi ditek Zegamako kultur etxearen ondoan, hire omenezko plaka koxkor batekin, eta harri hori aukeratzen ibili gintuan Urteberri bigarrenen, Aizkorpeko hire gogoko paraje horietan.

Gustura ibiliko hintzen hi ere, orbel artean gora eta behera.

Beldur nauk, hurrengo hilabeteetan paraliturgia gehiago ez ote dugun izango. Alferrik egingo duk protesta. Ez zaiguk ailegatuko. Eta gu oraindik asko akordatzen gaituk hirekin, Joxan. Askok. ■

TXANDAN

Igor Estankona



Arratia inguruko hiztegia, alegia. Mortala –Angel Larrea eta Juanxu Rekalde buru– arratieraren hiztegiaren inguruan urteokaz egin duten lana. Geure Berba-tegie proiektuaren baitan hainbat jende azpieuskalkiaren bibliografia osoa hustu du, elkarriazketa mordoa egin, aditza aztertu, adibideak jarri, berrehun argazki bildu... 25.000 sarreradun hiztegi itzela izan da emaitza, gure berbakuneari, bizkaierari eta batuari egindako oparia. Sakon jarritz gero, betirako munduari egindako oparia.

Esan eta esan gabilta bizkaieratik gure ekarpena

Arratiako

egin behar diogula hizkuntza bizi, aberats, modernoari. Nabardurak, esakuneak, lokuzioak, sinonimoak zein aldakiak, horiek guztiak euskararen osasunaren adierazgarri badira, hemendik aurrera baliabide bat gehiago daukagu guztiok. Galdakaotik Zeanurirainoko haranen tolesduretan gordetako altxorra da hau. Bertakook ere ez dugu baloratu izan altxor hori askotan, baina hor daude, esate baterako, pitxikoletea, txiripitenea, mitxikoletea, mitxilotoia, eskabie, txilipotadea, pitxikoletea, txirripitea, bitxilikotea, txilipitaña, sorgin-bitxie, zeruko katue... tximeleta esateko modu batzuk baino ez, hiztegi eder honetara ekarriak. ■

Joxerra Aizpurna

INDUSTRIA INGENIARIA

Makroa eta agian mikroa

Europako BPG puntu batetik gora hazi zen 2010ean, baina desberdintasun handiak izan ziren estatutik estatura; Frantzia %1,5 hazi zen bitartean, Espainia %0,2 txikitzen zen. “Espainiako langabezi-tasa 2010ean azken 15 urteetako mailarik handienan dago”. “2010ean munduko batez besteko tenperatura 0,2°C hazi da”. Estilo honetako izenburuak irakurtzen ditugu egunkarietan eta entzuten ditugu telebistan, eta informazio-mota horiekin gure iritzia nahiz egoera animikoa baldintzatuta geratzen dira. Baina aipatutako izenburuak egia baldin badira ere, norberaren bizitzari dagokionez ez dira hain egia.

“Euskadiren BPGa %0,2 hazi da 2010. urtean eta langabezia %2 hazi bada ere, Europako batez bestekoaren antzekoa da”. “Euskal Herria 2010. urtea hamarkadako hotzenetakoa izan da”. Azken esaldi hauek hurbilago daude gure errealitatetik aurrekoak baino, baina ezin uka guztiak egia direla.

Aipatu adibideak makro egoerak (Mundua, Europa, Espainia, Frantzia, Euskal Herria,...) adierazteko esaldiak dira eta makro datu horietaz baliatzen dira estatuak eta botere ekonomikoak, euren negozio-estrategiak bideratzeko garaian; gainera sinestarazten digute horrelakoa dela bizitza.



DANI BLANCO

«
Mikroa gara, baina makroak
agintzen du eta utzi egiten
diogu agintzen. Makroak
agintzen ditu Iberiar
penintsularen
iparraldean
»

Bestalde, jakin ongi dakigu norberaren biki-rik ez dagoela mundu osoan; ni hemen bizi naiz, horrela pentsatzen dut, senide hauek ditut, nire pentsamendua horrelakoa da, nire herria euria ari duen bitartean ondoko herria agian ez...; ni, ni naiz, ni mikroa naiz mundu honetan.

Mikroa gara, baina makroak agintzen du eta utzi egiten diogu agintzen. Makroak agintzen ditu Iberiar penintsularen iparraldean, Bilbokoaz gainera, beste superportu bat ere behar dugula, Euskal Herria zikinkeria ezabatzeko erraus-tegiak behar ditugula, Eusko Jaurlaritzako Zientzia eta Teknologiaren planak Europako makroidea multzoarekin osatu behar direla esatean. Mikroak agintzen digunaz ez gaude oso ziur, agian superportuen ordez portu eragin-korrak eta hobeto konektatuak, agian erraus-tegien ordez muturreko bir-ziklapena Zientzia eta Teknologiako planaren laguntzarekin.

Agian mikrotik sortutako ideiak, asmoak edo negozioak norberaren eko-sistemarekin naturalago uztartuko dira eta ondorioz globalizazioaren bidez trans-mititu zaigun krisiaren eragina txikitzeko bidea izan dezakegu; agian mikroetan oinarritutako ekonomien bidez, munduko mikroen aurrean errespetua erakusten duen ekonomia globala sortu dezakegu, agian. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Motza pozarena. Realeko jokalarien herenak bat egin zuen presoen aldeko sosten-guan. Herriaren parte direnez, presoen artean senideak eta lagunak dituztela pentsatzeko ez da Einstein izan behar. Poztu egin ninduen berriak, zerrenda horretan zeudenek baino ez zeudenek harritu nindutelarik, beste klubetakoek bereziki. Eta hainbatetan Realaren zuzendaritzak goratzen duen aldagelako giro elkarkoia oinarritzat jo nuen sinatzaileen lotsazko ausardia. Espainiako prentsak larrutuko zituela argi zegoen. Ez nuen zuzendaritzaren defentsarik espero, bainan Aperribayren erasoak, jokalaria publikoki

Zein bide

kondenatzeara ere ez. Eta presidentek kontseilua ordezkatzen baldin badu, kontseilari guztiak berarekin ados baldin badira, arazo sakona du Realak gipuzkoarren kluba izateko. Urangak ekarri, eta Iribar eta Kortabarria ikurrina atera zuteneko hartan, orduko zuzendaritzako bi ezagutzen ditut aurka zeudenak, gaur irudi harekin emozionatzen omen direnak. Baina orduan ez zuten aski indar izan hura kondenatzeko, nahiz eta beren ingurutan kirola eta politika ez zirela nahasi behar esan aho-bizarrez. Denbora gutxi barru oraingoak ere lotsagabeki presoen etxeraztea palkutik ospatzen ikusiko ditudala espero dut. Gora Real nik ere, aldagelako herena buru. ■

BERTSO BERRIAK

Imanol Lazkano

Gabonkeriei jarriak

DANI BLANCO



I

Gabon inguru hontan
inor ez da xurra
krisian gaudela ta
guzia gezurra!
Kontsumismoak egin
digu iruzurra:
patrikak hustu eta
gorputza izurra.

II

Lehen Erregeak ziren
orain Olentzero
denak batuta ere
azkenean zero
mezu berberarekin
baitatoz urtero:
Guztiok egitea
dendaren bezero.

III

Jaitsiko balitz Jesus
gurutziltzatua
lehenbizi salatuko
luke Aita Santua
ta gero kontsumismo
neurritz pasatua
esanaz “hori ez da
nik proposatua”.

IV

Jesusen historia
konta izan denez
mundu berri batean
egin zuen amets.
Izan nahi zuen hura
behartsuen babes
bihurtu da dirua
lortzeko lanabes.

V

Belengo estalpea,
Belengo arotza
gaur egun askorentzat
histori arrotza.
Gabon kanpaiak txin txin
diruaren hotsa
horrela ospatzen da
Belengo jaiotza.

VI

Iberdrola ere txintxo
Belenaren bila
piztu ditu milioika
farol ta bonbilla
ta orain eskertzeko
halako lan pila
tarifa igo eta
lasaitu dadila.

VII

Nahiz eta jakin zer den
saltzaileen asmua,
Olentzeroz mozorro
oi dute mamua.
Beti bezala irents
dugunez amua
alferrikakoa da
oraingo damua.

VIII

Nahiz askok ez sinistu
Belengo estanpan
urtero izar bera
pizten dute mapan.
Nola denok erori
ohi garenez tranpan
orain arnas estuka
urteko aldapan.

DOINUA: “Maritxu nora zoaz”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Antzerkia



Xentimorik gabe

Mundua kanta batean sartzen delako

Ray-k eta Nick-ek kantutik dantzara, pasadizotik abenturara zeharkatu dute mundua. Berriki bueltatu dira Euskal Herrira, “xentimorik gabe” baina haien ibileren berri modu umoretsuan emateko prest.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Dani Blanco

RAY ETA NICK, Ramon Agirre eta Inazio Tolosa; haien ikuskizunari *Xentimorik gabe* deitu badiote ere aurpegi bakarreko bi txanponak dira, eta txanpon bereko lau aurpegiak. Pertsonaiek beste istorio izan ditzakete kontatzeko ibilbide luzeko aktore biek: pertsonaiek bezala maite dute afalosteko anabasan kantuz murgiltzea, maite dute jendearekin

umorea eta jolasa konpartitzea. Aurpegion azpiko laukoteak izan du, hala ere, bestelako bidaiderik ikuskizunaren sortze prozesuan: Asier Sotak zuzendu du antzezlan, Pako Aristik lotu ditu hitzak.

Agirrek aipatu duenez proiektu hau sortzea ia-ia saihestezina izan da. “Aspalditik genuen biok elkarren harrikadaren berri. Hitz eginda



ere bagenuen, behin edo behin zerbait egitera kondenatuak geundela, estilo honetako zoramenen bat”. Lehenago, Antzerti-tik atera eta gutxira, Gabriel Celayaren *El relevo* antzezlanen egin zuten bat oholtzan, orduan ere bikoite berezia osatuz. “Bera deabrua zen, eta ni berriz aingerua” oroitu du barrezka Agirrek.

Gerora formatu anitzeko lanetan ibili izan dira biak, haien musika zaletasuna gertu izanik sarri. Musika bera da, hain zuzen ere, *Xentimorik gabe* honen hari garrantzitsuetako bat. Tolosak dioenez lan prozesuan nolabaiteko norabidea markatu die musikak, “kanta batetik bestera nola iritsi pentsatuz abiatzen ginen, baina oso era kaotikoan, ate guztiak zabalik edukita”. Entseguetan gauzak probatu ahala joan dira pertsonaiak aurkitzen, testuak idazten eta lotzen, antzezlanak dituen zati eta istorio txiki ugarien artean erritmoa bilatzen. Agirrek dioenez kaos horrek antzezlanari oinarrizko izaera eman dio. “Gu gatozen proiektu motekin konparatuta produkzioz eza izan da gurea, konpainietan dena oso lotua dagoelako. Ez dugu metodo zientifiko esturik, taldean egin dugu lan, denok jarri dugu prozesuan zer edo zer. Emaiztan ere nabaritzen da, seguru aski, kaotikoa dela, zentzu onean eta txarrean; baina ez zaigu inporta”.

Anabasa erabiliz emango dute Rayk eta Nickek haien ibileren berri. Bidean ezagututako

pertsonaiak ekarriko dituzte gogora; zeharkatutako herrialdeetan ikasitako kanta zatiekin, musika estilo ezberdinekin eta hizkuntzen zertzeladekin jantziko dute kontakizuna. Tolosaren esanetan titiriteroen izpiritu askearen xarma eta bizitza kaotikoa ekartzen dute gogora protagonistek. “Hasieratik argi genuen titiriteroen mundua zela oinarria, jolas ildo nagusia hortik zihoala. Bi tipo hauek musikaren inguruan bizi behar zuten, eta oso gezurtiak izan, sasi-musikariak, sasi-edozer-gauza...”. Titiritero funtsa horretatik gertu sentitzen dira aktoreak: “Normalean musika antzerkiarekin era honetan nahasten duzunean titiritero puntua hartzen du ia beti”. Agirrek ere aise osatzen du irudia: “Hemendik edo handik hartzen dituzte gustuko gauzak biek, plagioaren beldurrik gabe. Bagenekien abesti osorik ez genuela egingo, eta guretik sortu ere gutxi egingo genuela. Afaloste batean hasiko bagina zer ateratzen den aztertzen, gustuko ditugun gauzak ikusiko genituzke bata bestearen atzetik, ordenarik gabe eta askotan abesti osoa jakin gabe; puska bat kantatzen duzu eta gero beste batera pasatzen zara... beti ere jolasean”.

Hainbeste gauza bizi izan dituzte elkarrekin Rayk eta Nickek, nortasun aldetik biak bereiztea izan zela zuzendaritzak eduki duen erronketako bat. Agirrek dioenez, momentu bat iritsi zen material guztia ordenatu behar izan zutena. “Antzerkiko legeek esaten dute pertsonaiek ezin dutela elkar-trukagarriak izan, bakoitzari bere ezaugarriak bilatu dizkiogu”. Tolosak dioenez pertsonaiak osatzeko garaian leku eta teknika askotatik edan dute, bakar batean ere zeharo murgildu gabe: “Clown-aren mundutik hartu dugu apur bat, baina gehiegi ere ez. Hanka busti eta atera, horrelaxe ibili gara putzu askotan saltoka”.

“Laugarren hormarekin jarraitzen dugu jokatzeko askotan eta hor bada arrisku bat: ezin da zinearen edo kontzertu baten inpaktuarekin konpetitu”

RAMON AGIRRE

Umorearen bidetik Ray eta Nick gertukoak sentitzen ahal ditu publikoak, neurri batean kontaktatzen dutena benetan egia den ala ez zalantzan jarri arren. Agirrek dioenez hori ere bada irakurketa posible bat, propio bilatu dutena. “Beti dago zalantza: benetan gertatu zaie kontaktatzen ari direna?

Gauza batzuk egia dira, besteak momentuan asmatutakoak? Burutik oso sano ez dauden irudimen handiko bi tipo ote dira?”. Mugan dagoen jokamoldea da haiena askotan. “Agian terapia bat egitearen ondorioz etengabeko beroaldian dauden bi tipo izan daitezkeela pentsatzeak guri asko laguntzen zigun”.

Gertutasuna

Ezusteko zerrenda osatzen dute publikoak emanaldian zehar entzungo dituen kantek:

Simon and Garfunkel, Al Bano eta Romina Power, Pantxoa eta Peio... baita Elvis ere! *Xentimorik gabe* formatu txikiko lana izanik, ezinbestekoa da publikoarekin senti daitekeen gertutasuna, eta horretan musika sekulako zubia da. Lehenengo emanalditik sumatu zuten hori: "Igeldoko estreinaldian sartu ahala ekin genion lehenengo kanta jotzeari, eta jendeak lehen unetik heldu zion gurekin, 'Amerikatik etorri nintzen, xentimorik gabe...'".

Tolosak aipatu duenez proiektu hau funtsean haien buruari egin dioten oparia da. "Geurea zen zerbait egin nahi genuen, inongo inposiziorik gabe. Alde horretatik, oso librea da istorioa. Besteentzat lan egiten duzunean oso ondo dago, asko ikasten duzu, baina nik badaukat premia noizean behin neure kasako astakeriaren bat egiteko". Agirrek ere ez du zalantzarik horretan, disfrutatzeke eta zerbait sortzeke gogo propiotik datorkio antzezlanari freskura. "Poz handia ematen du zuk sortutako gauza bat defenditzeak. Guk askotan egin izan dugu, eta egiten dugu eta egingo dugu, beste norbaitek pentsatu, idatzi eta egituratutako gauzaren bat, baina sormen propioak beste askatasun bat ematen dizu. Titiritero sentitzen zara zentzurik onenean, oso libre eta gustuko dituzun gauzak egiten. Egin nahi duzun eta askotan egiteko aukerarik ez duzun gauzak egiteko modu bat ere bazen hau".

"Gertutasuna" hitz gakoa da beraz *Xentimorik gabe* bezalako lan batean: batetik aktoreen



"Besteentzat lan egiten duzunean oso ondo dago, asko ikasten duzu, baina nik badaukat premia noizean behin neure kasako astakeriaren bat egiteko"

INAZIO TOLOSA

arteko konplizitateak transmititzen duen gertutasunagatik, besetik publikoarekin duten gertutasun fisikoak ematen duen komunikaziorako aukeragatik. Agirreren ustez hori da, hain zuzen ere, egungo aretoko antzerkiak duen erronka handietako bat. "Ohikoan egiten dudan antzerkiak harreman hotza du publikoarekin, eszenatokia eta jendea oso urrun egongo balira bezala. Distantzia horrekin oso zaila da jendea emozionatzea, aztoratzea. Laugarren hormarekin jarraitzen dugu jokatzeko askotan eta hor bada arrisku bat: ezin da zinearen edo kontzertu baten inpaktuarekin konpetitu". Maila horretan antzerkiak egun jendearenagana iristeko behar izugarria du, eta *Xentimorik gabe* rekin era guztietako guneetan aritzeko prest badaude ere, ohol-tza txiki eta ertainetan sumatu dute aldea. "Jendeari zuzenean hitz egiten diozu, eta musikak ere asko laguntzen du publikoarekin bat egiten". Tolosak ere argi du antzezlanaren tonua gertuko delako oso. "Lan hau modu herrikoian egiteko dago pentsatua, edozein lekutan; afaldu eta gero koparekin ikusteko antzerkia da, ikusi eta pentsatzeko baino katxondeo pixka batekin disfrutatzea".

Rayren eta Nicken ibilbidean Eslovenia, Brasil, Mexiko, Tirol, Errusia, Argentina edota Mongoliari gehitu zaizkie Euskal Herrian Igeldo, Zarautz eta Bergara, besteak beste. Aurki gehituko zaizkie urtarrilaren 20an Bilbo eta 28an Errezil. Mundua kanta batean sartzen delako. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Liburuak

KRITIKA

Hutseaniko hazkurria eta beste.
Joxemiel Bidador.
Pamiela.
120 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Izpirituaren bazka

JOXEMIEL BIDADOR mingarriro gazte hil zenean, gogoan dut arrotz egin zitzaizkidala egunkarietako laudorioak: dantzari eta ikertzaile, isildu gura duten Nafarroako literaturaren antologo, historialari nekagaitz... Itzuli naiz une haietara, eta hilerriko haize hotza datorkit; gizonaren epeltasuna. Bidador amultsu hori, alabekin txoratua, Euskal Herria bezain nafarra, barrekabarrek zegoena beti, kausitu dut berriro liburu honetan. Euskal Idazleen Elkarteko idazkaria zeneko akta bat bezain perfektua bere elea, igartzen da maitasunez orraztu dutela Irigarai eta konpainiak Pamielan antologia hau. Alargunaren adostasunarekin azken ukituak harturik, bertan gordeko da betiko Bidadorren bihotz handia.

Errespetuz eta emozioz irakurri dut liburua, ulertuz zenbait muga. Kontuan hartuz, esate baterako, azken parteko *Andrea eta desgizonaren gauzatzea* eta *Garañoko gatazkaren bart bezperan egin besta isila* iruinsimerean poesia osoa liburu bakarrean biltzeko gogoz ekarri dituztela. Izan ere, lehiaketetan saritutako bi lanok ez dira ezinbestekoak. Lehena neurtitz ilunekin idazteko ahalegina da, eite klasiko eta formalistetan barna duda-mudan egingako bidea. Bigarrena, berriz, gure sustrai, historia eta folkloreak esplorazio sentimentala da, balio arean mugatukoa.

Hutseaniko hazkurria beste kontu bat da, horratik. Bidadorrek kontatzen digu izatearen ibaiek beldurtzen dutela, pozarekin nahastean datozen urek. Esperantza eta nekeen orrialdeotan poesia barne-barnekoa dago, existentziari eta ni-ari buruzko poemekin hasten dena —Barneko harrarena edo Beste niarekin eleketan—, eta era berean barne-behaketa iruzurtiaren kritika bihurtzen dena aurrerago: “*Nia ez da agertzen egungo (euskal) poesia (post)modernoan, / baizik ere niren projekzio faltsua, / karikatura, / (...)*”.

Dilema pertsonalotatik abiatutik zabaldu egiten da liburua alegiazko zein benetako zelaietara. Denboraren iragaiteaz eta naturaren ispiluez mintzo zaigu. Noizbehinka, hizkuntzari buruzko gogoeta bat oparitzen digu, edo historiari buruzkoa. Plazerez jarraitu ditut bere ibilerak, bere ezbaia eta segurantzaz-itxurak, eta hamazortzigarren orrialdera itzuli naiz behin eta berriro. Poema ikaragarri eder horretara, eta Baternaineko hilerriko agur-iluntzera, behin eta berriro. Poema horrek, berak bakarrik, justifikatuko luke liburu bat, bizitza oso bat idazten. ■

R. M^a Azkue sarietako irabazleak

Gazteak izanagatik ez zaie zer kontatua falta Resurrección María Azkue saria irabazi duten idazleei. Bi kategoria izan zituen literatura lehiaketak duela bi urteko edizioan: A mailan 1996tik 1999ra bitartean jaiotakoak lehiatu ziren eta B mailan 1992tik 1995era bitartean jaiotakoak. Euskaltzaindiak argitaratu berri ditu 2009an saridun izan zirenen




R. M^a Azkue saria.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia.
108 orrialde.

lanak, narratiba eta poesia alorretan. Mikela Atxoa-rena, Maialen Akizu, June Ugalde, Oriane Aiestaran, Lorea Solana, Nerea Eizagirre, Amaia Iturriotz, Goiuri Unanue, Leire Arenas eta Nerea Ibarzabal izan ziren irabazleak, batzuk behin baino gehiago. Euskal letrik harrobi osasuntsua duten seinale. ■

André Leroi-Gourhamen ‘Munduaren sustraiak’

Antropologoa, arkeologoa eta etnologoa izan zen André Leroi-Gourham. Ikerketa ugari egin zituen bai Europan, bai Ozeano Bareko iparraldean eta XX. mendeko arkeologo bikainen artean azaltzen da haren izena, besteak beste, erabili zituen metodoek eta teoriak Historiaurrearen ikuskera irauli zutelako. Liburu honetan Claude-Henri Rocquet idazleak egin zituen hamabi elkarrizketa biltzen dira, Leroi-Gourhamen biografia intelektuala, ikerketak eta teoriak zuzenean ezagutzeko aukera paregabea eskainiz. Gaiak argialetxeak plazaratu du lehen aldiz euskaraz obra interesgarri hau Jaione Alberdi Gabilondok egindako itzulpenari esker. ■



Munduaren sustraiak.
André Leroi-Gourham.
Gaiak.
273 orrialde.
22 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Omertá.
Mafia.
Estoldetan.
Iraupena: 47'47".
8 euro.

Mafia estiloen gainera dago, baina gogorra da beti

MAFIA FAMILIA HANDIEK osatzen dute eta Euskal Herriko musika taldeen eszenan ere poligamia handia dago, nahiz eta azken hauek botere txikiagoa izan. Mafia Durangaldeko musikari eskarmentudunek osatutako proiektua da, eta horrek bidea ematen die parte diren beste taldeetan lantzen ez dituzten sonoritate edo doinuak interpretatzeko. Sorterriko lehiaketetan harrera beroa izan ostean, estreinako diskoa kaleratu dute familia-mafia berak gida-

tzen duen Estoldetan-en bitartez. Euskaraz abestutako hamahiru piezatan rock gogorra eta indartsua lantzen dute bere ezaguera zabalenean: barruan kokatzen dira hard-rocka eta stonerra, batez ere, eta niri Monster Magnet, The Cult, Potemkin eta talde klasiko-epikoa-goak ekarri dizkidate gogora. Ezin, baina, juramentua tarteko, partaideen izen-abizenak ezagutzera eman.

www.myspace.com/mafiaaguys

Mafia

«Seme-alabei ez genieke musikari izatea gomendatuko»

Mafia da krisi eta balore gabeko garaiotan salba gaitzakeen bakarra?

Mafiak ez zaitu salbatuko, mafiak familia bakarrik dauka buruan eta mafiak ez du krisirik jasaten. Baina, Mafia entzuteak krisia jasaten lagunduko digu.

“Berrirori jaioko” bazinete, musika egingo zenukete? Konpentsatzen al du?

Askotan oso gazi-gozoa da musikaren mundua, lan asko eta poztasun gutxi ematen duena. Gure seme-alabei ez dut uste bizi-modu hau gomendatuko geniekeenik, askoz hobe mafioso izatea.

“Bat bateko ideiek ez dute tokirik nire mundu mugatu honetan”. Esperientzia, abantaila baino, oztopoa da?

Esperientziak beti aberasten gaitu, baina esperientzia dugunoi batzuetan ilusioa falta izaten zaigu. Musikaren munduan ere, askotan ezjakintasunak

originaltasunera eramane zaitzake eta esperientziak errepikapenera.

Durangaldeko zer desertuk inspiratzen zaituzte? Soinuan eta hitzetan horren erreferentzia garbiak ageri dira...

Goienkaletik Plateruenera dagoen bidea da gure desertua. Neguko larunbat hotzetan, gaueko ordu txiki-txiki gure hankak Plateruen plaza-rako bidea hartzen dutenean. Tragorik gabeko minutu horietan, gure

barneko basamortuetan bakardadean aurkitzen garenean, orduan etortzen zaizkigu inspiraziorik sakonena.

Zeren bila jo zenuten Nick Litwinengana?

Seiurteren azken diskoa berak masterizatu zuen eta emaitzarekin oso pozik geratu ginen. Gainera masterizazioa ezjakintasunez inguraturiko prozesu gatazkatsua da. Beraz, garantiazko norbaiten laguntza nahi genuen.

Estoldetan-ekin lan egitea etxean bezala aritzea da?

Musika dagoen egoera kontuan izanda, proiektuak aurrera eramateko era bat besterik ez da autoprodukzioa. Estoldetan diskoetxea Elortzatarrok sortu genuen gure familia eta lagunon artean sortzen ziren proiektuak aurrera ateratzen laguntzeko asmoarekin. Badakizu, Mafiak beti familian egiten du lan. ■



Ezpalak

JON TORNER

Scorseseren 'Boardwalk Empire' telesailak irekiko du FIPA jaialdia



MIARRITZEKO Nazioarteko Ikus-entzunezko saioen FIPA jaialdia hilaren 24tik 30era bitartean egingo da. Ehun lan baino gehiago proiektatu-

ko dituzte, tartean Martin Scorsese zinemagilearen *Boardwalk Empire* telesaila, lehiaketatik kanpo. Hain justu, jaialdiaren irekiera ekitaldian emango dute telesail hori. Orotara 68 lan lehiatuko dira urrezko FIPA saria irabazteko. Bestalde, Ohorezko Eurofipa saria 20 urte bete dituen Arte telebista kateak jasoko du. Interneten: www.fipa.tm.fr.

Santa Graziko azken maskaradak?

LAURENT CHÜBÜRÜ Santa-Grazi elkarteko lehendakariak Xiberoko Bozari adierazi dionez, Santa Grazin (Zuberoa) egiten den azken maskarada izan daiteke aurtengoa. Azken aldiz, 1994an antolatu zituzten maskaradak Santa Grazin. Aurten ere, bertako gazteek egingo dituzte, baina euskararen gainbehera nabarmena dela ohartarazi du Chübürük. 1968an, 500 lagun bizi ziren Santa Grazin eta %95ek euskaraz hitz egiten zuen. Egun, 200 biztanle inguru bizi dira eta euskarak atzerakada nabarmena jasan du; etxeko transmisioa eten egin da eta eskolan frantsesa baino ez da irakasten.

Armiarma webguneak (<http://armiarma.com>) euskal idazleen eta euren lanen inguruko informazioa eskaintzen duen Literaturaren Zubitegia datu basea berri eta eguneratu du. Euskal literaturaren entziklopedia txikia da; 2004ko apirilaren 1ean jarri zen abian sarea eta 823 idazleri eta 3.861 libururi buruzko informazioa biltzen du gaur egun.

Ikuspuntu Nazioarteko Zinema Dokumentalaren Jaialdia otsailaren 22tik 27ra bitartean egingo da Iruñean. Lehiaketara aurkeztutako 737 lanetatik, hamar herrialdetako hemezortzi film (hamabi luze eta sei labur) aukeratu dituzte antolatzaileek. Hainbat sari banatuko dituzte: film onenak 10.000 euro jasoko ditu, zuzendari onenak 5.500 euro eta film labur onenak 3.500 euro. (www.puntodevistafestival.com)

• Dani Fano komikigileak *Aizu!* aldizkarian: «Beti

gauza bera erantzuten dut: euskaraz egiten den komikia ez da existitzen. Ulertzen bada euskal komikigintza Euskal Herrian, bai gaztelaniaz, bai euskaraz egiten den edozer gisa, esango nizuke baietz, egoera kaskarra dela, baina behintzat badagoela hor Astiberri, oso argialetxe interesgarri bat, maiztasun zehatz batekin egiazko produkzio neurgarria daukana. Beste guztia anekdota da. Jada euskaraz argitaratzen dena ere anekdota da».



• Maria Amor Beguiristain prehistorialaria elkarriketatu du *Euskonews & Media* agerkari digitalak:

«Denok egiaren bila bagabiltza, diziplina anitzek elkar-guneak izan beharko lukete, bateratu beharko lukete. Baina historia historialariek, antropologoek... egiten dute, eta bakoitza bere suposamenduetan (eta, askotan, bere planteamendu ideologikoetan) oinarritzen da. Ondorioz, gauza beraren inguruan elkartu beharrean, banatu egiten gara. Ez da arraroa bestearen lana mesprezatzea, hasieratik, gure suposamendu berberak erabili ez dituelako. Gure benetako helburua zientzia baldin bada, bat eginik egon beharko genuke».

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

UNAI BREA

Munduaren muturra mutur aurrean berriz ere

El conquistador del fin del mundo. ETB2.
Igandeetan, 22:00etan. 125 minutu.

ITZULI DA gure pantailetara, ez naiz gogoratzen zenbatgarrenez, *El conquistador del fin del mundo* lehiaketa-realitya, eta hedabideek nabarmendu egin dituzte lehenbiziko emanaldian lortutako ikusle kopuru onak. Zuzendaritza aldatu zuenez geroztik hizpide ditugu ETBren audientzia-datuak, besteak beste etengabeko maldan behera doazela gogorazten digutelako, aukera dutenero, Lakuako lehengo maizterren bozeramaile-tza duten medio pribatuek. Ekua-zio erraza darabilte: audientzia gutxiago=PSE oso gaizki ari da. Patagoniako haize freskoa k mesede egingo dio Suriori.

Baina telebista-kate bat, batez ere publikoa bada, audientzia-datu hutsetan oinarrituta baloratzea arriskutsua da, jende askok ikusten dituen saioek ez dute berez telebista hobe bihurtzen. *El conquistador* horren adibide bikaina da nire ustez. Senideak, lagunak, fruta erosten diodan saltzailea... nire inguruan ia denak pozarren daude lantzi, Oiartzabal, Korta eta abarren abenturak ikusgai dauzkatelako ostera ere. Niri, berriz, amorrua ematen dit diru publikoarekin halako saio bat ordaintzeak.

Lehiaketa da, ados; eta lehiaketek tradizioa dute telebista publikoan, dena ez baita eztabaida, politika eta dokumental. Baina *El conquistador del fin del mundo*, batez ere, reality showa da. Alegia, aitzakia baten inguruan, kasu honetan ustezko biziraupen-erronka, parte hartzaileen arteko liskarrak sortu eta liskar horiek kameraren bitartez etxeratzen dizkigun saioa.



Haserreak artifizialki nola sortzen diren ondo ezaguna da, besteak beste mota horretako saioen arduradunek eurek azaldu izan digutelako. “Normalean, jende berezia aukeratzen da casting-etan, eta berezien artean arruntago diren bi edo hiru jartzen dira, kaleko ikusle xehearen ikuspuntua lehiaketa barrutik eman dezaten”. Hala esan zigun behin Txema Montoyak, *El conquistador*-eko zuzendariak.

Auzo bakoitzeko “berexiena” jarri Patagoniako puntan, jateko gutxi eman, sortu nahi eta nahi ez bata bestearekin haserretzea eragingo duten egoerak, eta hortxe duzu ikusle kopuru itzela zure saioari begira. Esan dut dagoeneko: kate publikoek entretenimendua ere eman behar dute, eta *El conquistador del fin del mundo*-k, agidanez, asko entretenitzen du, baina horiek dira kate publiko batek zabaltu behar dituen baloreak?

ETBko garai bateko Entretenigarri eta Gazte Saioen buruak modu sinple honetan justifikatu zuen ETBk realityak ematea, hau idazten duenaren galderei erantzunez: “Jendeak oso gustura ikusten ditu era honetako saioak, beraz, zergatik ez ditugu geuk egingo?”. Eta zergatik ez *prime time*-an emango? Eta zergatik ez saioari buruzko “eztabaida” eman lehiaketaren biharamunean, ETArekin azken agiriak hitz egingo den mahai-ingurua, esaterako, gauerdira zokoratuta? Uste dut ez dudala ondo ulertu zerbitzu publikoarena. Baina are gutxiago ulertzen dut zerk huts egiten duen nire buruan, Juanito Oiartzabalek norbait popatik hartzera bidaltzen duela ikusteaz ezin gozatzeko, jende normalak bezala. ■



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.




BIZKAIA
BIZIA

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea (pl). Anfibia, uretan igerian eta lehorrean jauzika ibiltzen dena. 2. **Argazkian**. Dauka (alderantziz). 3. Aldapa. Enara, elai. 4. Emea nebarekiko. Kontsonantea errepikatuta. 5. Molibdenoaren sinboloa. Oiloa loka jarri. Beheko aldea. 6. Gizonezko izena. Medikua, sendagile. 7. Alderantziz. Elur-erantsi larri. 8. Egite, ekintza. Handitzera behartu.

Goitik behera:

1. Zikoina. 2. Luzera neurri, milimetroaren miliaren baliokide. 3. Ahuntzaren ar. Toki horretan. 4. Suari dariona. Hizketan, berbetan. 5. Uzta. 6. Zezen zikiratuak. Rhesus faktorea. 7. Ginebra. Abereci janaria jartzen zaien egurrezko ontzia. 8. Bitartean. 9. Ur-tanta txikien geruza. 10. Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakinetako bakoitza. Oihu, hots. 11. Jaurtigai txikia. 12. Ur izoztu. 13. Leku hartara. 14. Hegal, izkina. 15. Ene!, oi!

Sudokuak

Erraza

					7	9	6	
7				6	4		5	2
3	9						8	
9			5	2	6		7	3
	3						2	
1	5		7	8	3			9
	4						9	5
8	6		1		5			4
	7	3	9					

Zaila

		5	9		4			
2			7				4	
			5	8			2	
	9					2		4
4								6
1		8					5	
	6			5	2			
	3				9			7
			8		7	5		

Andregaiaren soinekoa

Joan den urteko abenduan kalean entzundako elkarrizketa da honako hau.

Amona bere ilobarekin dago Plaza Zaharrean, bikote ezkonberria Tolosako Udal-etxetik noiz aterako zain. Dantzariak ate nagusiaren parean daude, bi ilaratan jarrita, eta haien inguruan senideak eta lagunak arroza botatzeko prest. Bat-batean oihuak eta zalaparta zabaldu dira plazan. Eta instantean, hantxe azaldu dira andregai eta senargai, eskuekin buruak



arroz aleetatik babestu nahian.

Iloba txikiak, ezkonberriei begirik kendu gabe dagoela, hauxe galdetu dio amonari:

— Amona, eta zergatik doa andregai zuriz jantzita?

— Bada, andregaiak zoriontsu dagoela adierazi nahi duela, eta horixe delako itxaropenaren eta maitasunaren kolorea.

— Amona, eta orduan, zergatik doa senargai beltzez jantzita?

Soluzioak

6	1	8	2	4	7	3	5	9
5	7	3	9	6	4	1	2	8
8	6	9	5	1	7	2	3	4
4	2	1	3	6	8	7	9	5
1	5	2	7	8	3	6	4	9
6	3	7	4	1	9	5	2	8
9	8	4	5	2	6	1	7	3
3	9	6	2	5	1	4	8	7
7	1	8	6	9	4	3	5	2
4	2	5	8	3	7	9	6	1

Erraza

Zaila

6	4	1	8	3	7	5	6	2
5	3	2	6	4	9	8	1	7
8	6	7	1	5	2	4	3	9
1	2	8	4	9	6	7	5	3
4	5	3	2	7	8	1	9	6
7	9	6	5	1	5	2	8	4
6	7	4	5	8	3	9	2	1
2	8	9	7	6	1	3	4	5
3	1	5	9	2	4	6	7	8

Ezker-eskuin: 1. Amak, Igea 2. Mikeldi, Ud Handiarazi. **Goitik behera:** 1. Aniamoko 2. Mikroi 3. Akere, 4. K. E. E. 5. Labore, 6. Idak, Rh. 7. G. 8. Askas, 9. Larrun, 10. Adar, 11. Bala. 12. Elur, 13. Hara, 14. Ertz, 15. Aiel.

III MIKEL ESSERY BIDAIA KONTAKIZUN LEHIAKETA

Euskaraz, gaztelaniaz, katalanez, galizieraz edo ingelesez idatzita, eta gehienez 6.000 hitz.

Epea: 2011ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 1era

concurso@mikelmunduan.net

Saria: pertsona batentzako nazioarteko bidaia bat
Kategoria ezberdinetako finalistentzat beste sari batzuk.

Informazio gehiago:
www.mikelmunduan.net

Mikelek Yemenen
1995an egindako gouache



Zientzia eta teknologia


JOXERRA AIZPURUA

Antimateriaren misterioa argitu nahian

TEORIA ONARTUENAREN ARABERA, Big Bang-a gertatu ondoren materia eta antimateria kantitate berdinetan sortu ziren, baina antimateria berehala desagertu zen. Antimateria era errazean eta laburrean definitzearen, atomo baten antimateria atomo berdina da, baina aurkako karga duena.

Esan bezala, antimateria sortzen denean berehala desagertu edo ezkututzen da, eta horren zergatia ikerketa ugariaren argudioa izan da zientzian. 2010ean, Genevan dagoen CERN laborategiko ikerlariak 38 hidrogeno antiatomo lortu dituzte; antihidrogeno atomo horiek protoi negatibo bat eta elektroio positibo bat dituzte, hau da, hidrogeno atomo batek dituenaren aurkakoak.

Antiatomo horiek segundo baten hamarrenean iraun dute eta ondoren desagertu egin badira ere, arestian aipatu agerpen denbora oso garrantzitsua da. Hemendik aurrera antimateria gehiago eta denbora luzeagoan sortzea espero da.



CERN laborategia modu eskematikoan agertzen duen irudia.

PORTALHISPANO.FILES.WORDPRESS.COM

Pilotaren abiaduraren eta sarearen altueraren pertzepzioa tenisean

Ongi jokatzuz gero, tenislariak uste izaten dute gaizki jokaturakoan baino polikiago mugitzen dela pilota. AEBetako Purdue Unibertsitatean egindako azterketa psikologiko baten bidez, pertzepzio horren nondik norakoak ikertu dituzte. <http://ttiki.com/21785> (Gaztelaniaz)

500 milioi iraun duten fosilen misterioa argituta

Hegoafrikako Table mendiaren inguruan dagoen aztarnategi paleontologikoaren kontserbazioak harridura sortu du ikerlariengan. Antza denez, haize glaziar gogorak elikagai ugari ekarri zien bertan bizi ziren izakiei, eta horrek hildakoak ongi kontserbatzea ahalbidetu zuen.

<http://ttiki.com/21786> (Gaztelaniaz)

Meningokokoek taldean erasotzen dute

FRANTZIAKO CNRS eta Inserm zentroetako ikerlariak meningokokoek, hots, meningitisa sortzen duten bakterioek, garuna erasotzeko duten era zein den argitu dute. Bakterio horiek oso zabalduta daude ingurumenean, baina benetan arriskutsu suertatzeko garuneraino heldu behar dute. Hori gutxitan gertatzen da, baina gertatzen denean eraso oso bortitza izaten da, eta horren zergatiaren bila aspaldidanik ibili dira ikerlariak.

Antza denez, meningokokoak odolera sartzean meningeak (garuneko kapilarrak) elikatzen dituzten hodietan denbora luzea irauten dute, gutxia kolonizatu arte. Hainbat etapatan egiten dute hori; batetik, seinale kimikoak bidaltzen dituzte eta horien eraginez poltsa isolatzaileak sortzen dira odol hodien zuntzetan, eta bestetik, poltsa isolatzaile horiek odola bakterioengana ailegatzea ahalbidetzen dutenez, haiek erruz ugartu daitezke. Mekanismo hori ulertzeak asko lagundu dezake meningitisaren aurkako borrokan.



SAMEENS.DIA.UNED.ES

Koefiziente intelektuala eta epe laburreko oroitzenak

Bi hauetatik zeini esleitzen zaio koefiziente intelektual handiagoa: zortzi objektu ikusi horietako lau gogoratzen dituenari, baina detaile gutxiarekin, edo detaile handiagoarekin bi bakarrak gogoratzen dituenari? Oregoneko Unibertsitateko (AEB) ikerlariak erantzun interesgarria eskaini dute.

<http://ttiki.com/21787> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txaratik mugarrora

BASOA EKONOMIA OSOAREN OINARRIA zen garaietan, zuhaitzak arrasean moztu eta berritzean sortutako txara zen hura ustiatzeko era nagusia. Txarak istiluak sortzen zituen: abereek ezin zuten bertan bazkatzu, berritzen ari ziren landareak jango baitzituzten. Hura komeria!

Egurzaleen eta abereza-leen arteko iskanbila epaituz epaitu zen. Epaituz, epetuz, moztuz. Lepoa mozteak askatu zuen buruhaustea. Lepatu, zuhaitzei lepo egiten zitzaientzen. Lepatu, mugarrotu egiten zen zuhaitza, hiru bat metroa zast moztu. Han goian berrituko da, adar mordo bat emango du. Hainbat urtez behin, adarrok behar dugun tamainakoak egin direnean berriro bertan mugarrotu. Guk egurra eskuratu dugu eta zuhaitza goi horretan berrituko da. Behor lepaluzeenaren zorrotzetatik urruti. Zuhaitzaren ipurdian eta enborrean sortutako altsumak harrapatu eta jango ditu abereak, baina hori ona da, goiko adar berriak indartuko dituen inausketa. Honela sortzen dira zuhaitz motzak, modorroak edo



FLICKR: CMDRGRAVY-CC BY

mugarroak. Basogintza perfektura hurbiltzen den paisaia kulturala, bertako kulturaren ekonomiaren premiak denak asetzera bideratutakoa: abereen bazkak, ikazkinen egurrak eta arotzen zurak.

Mugarroak basoan baka-rrik ez dira izaten. Katua- ren mugarroen barruko etxe bueltan, hesietan, sailen mugetan, bide ertzean... Nonahi topatuko dituzu mugarrotutako zuhaitzak.

Hauetako gehienei beste etekin bat kendu izan zaie: hostoz jantzita zeudenean adarrak moztu eta hostoak ihartzean jaso: abereentzat negurako bazka. Gaur egun mugarro gehienak hirietako plaza eta kaleetan ikusiko dituzu. Itzala da bere emari onena.

Arazo handi bat du, baina, mugarroak, urtea joan eta urtea etorri toki beretik moztearen mozteaz zuhaitza ahitu egiten da eta enborreko erreserbak galdu. Ondorioz enborra hutsa dute mugarroek. Mozteari utzitakoan adar gero eta handiagoei eutsi behar diete eta jo eta hautsi eta adarrak erortzea ohikoa da. Kontuz beraz, kaleko mugarroen azpian...

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Gure amonak biltzen zuen belar batzuen izena "zain gorri" edo "xaingorri" zen. Ereñotzuko Alkatxuingo Patxik belar horiei bereri ematen dien izena: txangoli belarra. Hortaz, "txakolin" hitza eta "zain gorri" ez ote dira gauza bera? Horretarako, gutxienez, txakolin mahastietako landare, orpo edo zainek inongo gorritasunik baduten jakin beharko genuke.

Imanol Lizeaga (Hernani).

Aupa Imanol. Txangoli-belarra ez dut inoiz entzun. *Geranium robertianum* belarrarentzat ezagutzen ditudan izenak hauek dira: lertxun-moko, manda-perrexila, belar-zangogorria, zaingorria eta zangogorria. Zangogorritik txangoli? Posible da. Txakolinaren edo mahatsondoaren zangoa, zaingorriarena bezala gorria da. Gorria zentzu zabalenean eta antigalekoan, hau da, gaur egun marroia esango genukeena. Polita bidea, txakolina zaingorritik etortzea... Ea filologoren batek hartu eta ikertzen duen. Polita bai, polita. Beno, ez dakit ezer argitu dizudan...



Landareei buruzko galderen bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxe: 943 79 49 12 · lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Erasmus fenomenoak 25 urte

WWW.WORDPRESS.COM



Ezkerrean, Erasmo Rotterdamgoa (1466-1536); Europako ikasleen truke-programa ezaguna haren omenez izendatu zuten duela 25 urte. Eskuinean, Bilboko Erasmus festak iragartzen dituen afixa.

BRUSELA, 1986KO URTARRILA. Sei urtez Europako unibertsitate ikasleen arteko trukeen probak egin eta gero, Erasmus Programaren proposamena Europako Batzordera iritsi zen lehen aldiz. Orduan Batasuneko kide ziren herrialde gehienak alde egon arren, Batzordean pisu gehien zutenek –nagusiki, Frantziak, Alemaniak eta Erresuma Batuak– ordurako bazituzten beren truke-programak eta proposamena baztertzea nahi zuten. Negoziazio gogor eta luzeen ondoren, azaroaren 28an proposamena atzera bota zuten. Baina hezkuntza erakundeek eta gazte mugimenduen presiopean, gaia berriro iritsi zen Kontseilura abenduaren 15ean. Erasmus Programa handik hiru egunera onartu zuten eta, zenbait formalismo legal gorabehera, ofizialki 1987ko ekinaren 15ean jarri zen abian.

1987-1988 ikasturtean 3.244 ikaslek osatu zuen lehenengo Erasmus belaunaldia. 2006an, berriz, 150.000 ikaslek baino gehiagok baliatu zuten



WWW.ERASMUSWORLD.COM

truke-programa, Europako ikasle biztanleriaren ia %1ek. Gaur egun 31 herrialdetako goi mailako 4.000 hezkuntza erakunde baino gehiago daude programaren barruan. 2007an, Erasmus-ek hogeita urte bete zituztean, dagoeneko bi milioi pertsona baino gehiago ziren programan parte hartu zutenak, eta 2012an hiru milioi-tara iritsiko direla aurreikusi dute.

Erasmus ingelesezko *European Region Action Scheme for the Mobility of University Students* izenaren akronimoa izan arren, siglak propio ahokatu arazi zituzten programa Erasmus Rotterdamgoaren omenez izendatzeko. Erasmok Europa zeharkatu zuen dogmatismoaren aurkako borrokan eta ezaguerazabaltzeko asmoz. Eta hiltzean, ondasunak Suitzako Basileako Unibertsitateari utzi zizkion. Baina Erasmus, esperientzia akademikoa baino gehiago, fenomeno sozial bilakatu da. Eta, gehienentzat, Erasmoren espirituaren gainetik, Erasmus festa entzutetsuengatik da ezaguna.

Arrastoak

Guztiok gara Howard Carter... Interneten

GRIFFITH INSTITUTUAK (Oxfordeko Unibertsitatea, Erresuma Batua) Tutankhamoni buruzko artxiboaren digitalizazioa burutu berri du, hamabost urtez horretan jardun eta gero, eta Interneten jarri du, www.griffith.ox.ac.uk/gri/4tut.html helbidean.

Interneteko artxibategiak duela ia 90 urte Howard Carterrek aurkitutako 3.150 objektuen irudiak eta fitxak jasotzen ditu (Carterrek berak betetakoak). Horrez gain, zirriborroak, 2.000 argazki inguru eta Carterren egunkariko milaka orrialde daude aztergai. Orain eskura dagoen material horren % 70 ez da sekula akademikoki argitaratu eta gune berriak Carterrek abiatutako lana osatzen joateko aukera ematen die ikerlariei.



WWW.GRIFFITH.OX.AC.UK

Howard Carterrek hamar urte eman zituen Tutankhamonen hilobia industen; Griffith Institutuak hamabost urte behar izan ditu webgunea osatzeko.

U-27ko greba orokorra

Gaur lan gehiago egin, bihar gutxiago kobratzeko

Greba orokorra deitu du euskal gehiengo sindikalak urtarrilaren 27rako. Gizarte zerbitzuen murrizketei, eta bereziki, Espainiako Gobernuak onartu nahi duen pentsioen erreformari erantzutea dute helburu. Erreformak, iraganean irabazitako eskubide sozialak ezabatuko dituela diote sindikatuek. Ekonomia krisia lehertu zenetik hirugarren greba orokorra izango da.

DANIEL UDALAITZ



ARGAZKI PRESS / JON HERNAEZ

Urtarrilaren 27an Hego Euskal Herrian deitutako greba orokorra aurkezteko prentsaurrekoa.

GEHIENGO SINDIKALAK (ELA, LAB, STEE EILAS, EHNE, HIRU, ESK) Hego Euskal Herriko herritarrei urtarrilaren 27an greba orokorra egiteko deia luzatu die, pentsioen erreformari eta 2011rako hainbat aurrekontutan

—estatu, autonomia eta foru aurrekontuetan— aurreikusten diren murrizketa sozialei erantzuteko. Espainiako Gobernuak pentsioen erreforma urtarrilaren 28an onartzea aurreikusi du, eragile politiko eta sozialekin akordioa lortu ala

ez. Erreforma horrek etorkizuneko pentsiodunek gehiago lan egitea eta gutxiago kobratzea ekarriko du. Krisialdia hasi zenetik Euskal Herrian deitzen den hirugarren greba orokorra da eta, sindikatuen arabera, hau ere beha-



ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGALIZO



ARGAZKI PRESS / JAGOBA MANTEROLA



ARGAZKI PRESS / MARISOL RAMIREZ

Elker-eskuin: CCOO eta UGT sindikatuek Bilbon egindako manifestazioan Zapatero parodiatzen. Euskal gehiengo sindikalarren manifestazioa Iruñean. Sindikatuen ordezkariak urtarilaren 27ko greba erregiratzeke unean.

errezkoa da azken hamarkadatan euskal langileek defendatu dituzten eskubideei eusteko: “Pentsioen historiako erreformarik gogorrena izango da, ez daukagu beste aukerarik” esan zuen Adolfo Muñoz ELAko idazkari nagusiak greba aurkezteko unean. Bestalde, Espainiako Gobernuak eta CCOO eta UGT sindikatuek erreforma negoziatzen darraite, eta artikulua hau idazterako unean, badirudi Espainiako Estatuan greba orokorra deitzeko mehatxua desegiten ari dela.

Erreforma horrek ez die Euskal Herriko 700.000 pentsiodunei eragiten, ondoren datozen belaunaldi gazteei baizik, hau da, langabezia dauden edo enplegu ezegonkorak dituzten gazteei. Zalantzarik ez dago Euskal Herriak pentsio sistema propioa izatea guztiontzat askoz hobea litzatekeela, baina hori beste eztabaida bat da.

Kotizazioaren zenbaketa 15 urtetik 20 urtera zabaltzen bada, etorkizuneko jubilatuen pentsioak, batzaz beste %6 murriztuko dira

Kaudimena bermatzeko neurriak

Gobernua, alderdi politikoak eta gizarte eragileak bat datoz pentsioen erreforma ezinbestekoa dela, pentsioak beste 25 urtetan bermatu ahal izateko, aldaketa demografikoak, jaiotza tasa murrizteak eta bizi itxaropena luzatzeak, horretara behartzen baitu. Hala ere, pentsio sistema ziurtatzeko hartu behar diren neurrietan ez datoz bat.

Espainiako Gobernuak sistemaren kaudimena erretiro adina pixka-

naka 65 urtetatik 67ra luzatuta bermatu nahi du eta, hala, 2027an erretiroa 67 urteko adinarekin hartzea derrigorrezkoa izango litzateke. Gainera, kotizazioaren zenbaketa aldia zabaltzea nahi du. Kasu horretan gaur egungo 15 urteak 25 izatea da asmoa. Zantzu guztien arabera, oraingoan 15 urtetik 20 urterako jautzia egingo da eta horrek etorkizuneko erretirodunen pentsioak batez beste %6 murriztea ekar lezake. Beste herrialde batzuetan zenbaketa aldiari buruzko antzeko neurriak hartu dituzte dagoeneko. Frantziako Estatuan 10 urtetik 25era igaro dira, Austrian, aldiz, 15etik 40ra eta herrialde askotan (Finlandian, Polonian, Portugalen eta Suedian) lan bizitza osora zabaltzea.

Sindikatuek erretiro adina atzeratzea arbuatzen dute, baina zenbaketa aldia zabaltzea onartzen

700.000 pentsiodun Euskal Herrian

Euskal Herrian, 2010. urtearen amaieran, pentsiodunen kopurua 680.000 ingurukoa zen. Horietatik 617.608 Hego Euskal Herriari dagozkio eta gainerakoak Ipar Euskal Herriari. Lurraldez lurralde, Araban 64.316 pentsiodun daude, Bizkaian 264.570, Gipuzkoan 168.258 eta Nafarroan 120.038. Ipar Euskal Herriari dagokionez, 2009an Ipar-Hegoa fundazioak egindako ikerketa baten arabera 58.947 pentsiodun zeuden. 2010. urtearen amaieran, Espainiako Estatuan orotara 8.739.732 kontribuzio pentsio ordaintzen ziren.

Iragan abenduan EAEko batez besteko pentsioa hileko 972 eurokoa zen. Espainiako Estaturako batez besteko altuena da, Asturiasko eta Madrilgo pentsioen gainetik. Nafarroan batez besteko pentsioa 886,26 eurokoa da eta Espainiako Estaturako sailkapenean laugarren postuan dago. Sailkapen horretan Galizia da azkena, 657,24 euroko batez besteko pentsioekin. Ipar Euskal Herriko batez besteko pentsioa 800 euro ingurukoa da.

SOLOZABAL

*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Zer pentsio, zer etorkizun

Pentsioen sistemak erreformatu eta pribatizatzeko asmoak ez dira atzo goizekoak. Sarkozyk eta Zapaterok aspaldi idatzitako gidoi bati segitu diote, eta finantza krisiak sortutako egoerarekin ezin ego kiago bete dute euren papera. Ekonomia kritikorako Taifa mintegi katalanak *Qué pensiones, qué futuro* (Icaría, 2010) liburuan errepaso itzela ematen dio pentsioen auziari eta agerian uzten ditu atzean dauden interesak.

Liburuan, Miren Etxezarreta ekonomia katedradunak dio, Alemanian sortu zirela zahartzaroko pentsio publikoak XIX. mendean; gero, Bigarren Mundu Gerraren ostean loraldia bizi izan zuen pentsio sistema publikoak herrialde industrializatu ia guztietan, AEBetan izan ezik, jakina. Baina 1970eko hamarkadan, AEBetako ereduari jarraitu nahi izango diote Argentina eta Txileko diktadorek, eta pentsio pribatuak bultzatuko dituzte. Hor hasten da, askoren aburuz, pentsio publikoaren gainbehera, Reagan eta Thatcherren garairik gogorrene-tan hain zuzen. 1994an Mundu Bankuak *Adverting the Old Age Crisis* (Zahartzearen krisia saihestuz) txostena kaleratu zuen, eta teoria demografikoari bidea ireki zion. Geroztik, pentsio publikoak "krisian" daudela esateko arrazoi nagusia populazioa zahartzea izan da.

Eta zein da Mundu Bankuak eta enparauek eskaintzen duten soluzioa? Pentsio pribatuak sustatzea, boluntarioki batzuetan, eta derrigorrez bestetzueta:n "Bistan denez, aurrezteko era pribatuak beti existitu



Qué pensiones, qué futuro.
Askoren artean. Icaría,
2010, 167 orr.

dira —dio Etxezarretak—. Zergatik orduan, hain argudio elaboratuak pentsio plan pribatuak hazteko? Gakoa *derrigortasunean* dago. Epe luzeko funts bihurtzean oso interresgarriak dira finantza negozioentzat. Langileak produktu hauek 'erostera' derrigorturik daude". Espainian 1989koa da pentsio pribatuak baimentzen dituen legea. 1995ean lehenengo Toledoko Ituna egin zen alderdi politikoen artean, eta itun horretan pentsioen espirtu solidarioa murriztu zen, aportazioaren arabera kategoriak sortuz. 2001eko bigarren Toledoko Itunean ere torlojua estutuko da "malgutasunaren" izenean. Estrategia sinplea da: pentsio publikoa hustu eta zailtzen den bitartean, pentsio plan pribatuak sustatzen dira —hobarien bidez, esaterako—. Espainian, funts pribatu horiek

kasik ez ziren existitzen 90eko hamarkada hasieran, baina 2007an 80.000 milioi euro gestionatzen zituzten, Gizarte Segurantzak Erreserbako Funtsean duen kopuruaren ia bikoitza.

2008ko finantza krisiak gogor kolpatu zituen pentsio funts pribatuak, eta orain bere produktua "erosiko" dion bezero egarritz dira, eta hain zuzen, Espainiako Gobernua pentsioen erreforma bultzatzen ari da, etorkizuneko pentsionistok has gaitetzen kontatzen bat, bi, hiru... 41 arte, eta kakalarriak sarturik La Caixa edo BBVAko bulegora joan gaitezen.

Urko Apaolaza

dute, beti ere kotizazio urte onenak aukeratu ahalko balira, hori pentsiodunen mesedetan izango litza-tekeelako. Nolanahi ere, sindika-tuek puntu hauen alde egiten dute: kotizazio oinarriak handitzea, sol-datak hobetzea ekarriko lukeena; sistemaren barruan nekazaritza aseguruua dutenak eta etxeko langi-leak integratzea; estatuak zenbait kontu sail beregain hartzea, hala nola minimoen osagarria; eta, jaki-na, lan merkatua hobetzea langile gehiagok ordain dezan.

Gazte eta emakume izatearen zailtasunak

Zalantzarik gabe, pentsio sistema erreformatuak lan merkatuan sar-tzeko zailtasun gehien dutenei kalte egingo die, hau da, egungo gazteei eta emakumei. Lan ezegonkorta-suna nagusi den merkatuan kotiza-

zio urteak zabaltzeak esan nahi du gazte gehienek pentsio duina lor-tzea ezinezkoa izango dutela. Eta berdin gertatuko zaie egungo mer-katuan sartzeko eta bertan eusteko zailtasun handiak dituzten emaku-mei. Hala, 35 urtetan kotizatzeko lan merkatuan 30 urte bete baino lehen sartu behar da eta handik aurrera etengabe lanean aritu. Baina gazteen erdiak langabezian daude

Gure politikariek %80ko pentsioa lor dezakete 7 urteko jarduera parlamentarioaren ondoren, eta %100ekoa 12 urte kotizatu eta 60 urte beteta izanez gero

eta ez dute lanpostu finko bat lor-tzeko aukerarik. Eta dagoeneko lana daukatenen %23k kontratu ezegonkorak eta jarraipenik gabe-koak dituzte.

Politikari izatearen abantailak

Gehiengo sozialaren pentsioak murriztu arren, murrizketa horiek inposatzen dituzten politikariek uko egiten diote beren pentsio abantailatsuak ukitzeari. Iragan aza-roan Espainiako parlamentuan eta senatuan saiakera bat egin zen, baina ez zen onartu. 2006an onar-tutako pentsio sistemari esker, gure politikariek %80ko pentsioa lor dezakete 7 urteko jarduera parla-mentarioaren ondoren eta %100ekoa 12 urte kotizatu eta 60 urteak beteta izanez gero. Gasteiz-ko eta Iruñeko legebiltzarretan ere egoera antzekoa da. ■

«Erreforma hau eraso larria da, eta erantzun kolektiboa behar du, horregatik goaz grebara»

Beatriz Martxueta LABeko Politika Sozialeko arduraduna da. Espainiako Gobernuak bultzatu nahi duen pentsioen erreformak eskubide soziala “merkantzia” bihurtuko duela dio, eta horregatik daudela errotik kontra. Elkarriketa hau egiteko unean, CCOO eta UGT negoziatzen ari dira Moncloan, eta erretiroa 67 urtera atzeratu ala ez dute ardatz: “Ez dugu ulertzen, erreformaren beste neurriek *de facto* ekarriko dute erretiro adina atzeratzea”.

URKO APAOLAZA

Argazkia: Dani Blanco

Espainiako Gobernuak pentsioen erreforma onartu nahi du urtarrilaren 28an. Zer ekarriko dio erreforma horrek herritarrari?

Neurri hauen ondorioak benetan larriak izango dira. Alde batetik prestazioak murriztuko dira: zenbaketa 20 edo 25 urtera igotzen bada, pentsioetan %20ko murrizketa ekar dezake. Horrez gain, jende askori eskubide hori ukatuko zaio, 15etik 25era igo nahi baitute kontribuzio urteen muga prestazioa jaso ahal izateko. Eta erretiro adina 67 urtera atzeratzeak ere ondorio latzak dauzka. Momentu honetan, milaka langileren pentsioa –batez ere emakumeena eta gazteena– kinka larrian dago, prestazioak merkantzia bihurtu nahi dituzte eta gure eskubideak erosi beharko ditugu.

Erreforma horren defendatzaileek diote biztanleriaren zahartzeak sostengaezin egin duela eungo pentsio sistema, horrela al da?

Mila eta bat azterketa daude ondorio horretara eramaten dutenak. Ikerketa horiek 90eko hamarkadan hasi ziren bultzatzen eta atzean beti dago finantza botorea (BBVA, Santander, FEDEA...). Konstatazio bakarra dago: ikerketa horiek esaten zuten 2010ean pentsioen sistemak kiebra joko zuela, baina momentu honetan Erreserba Funtsak superabita dauka. Egia da gero eta urte

gehiago bizi garela, baina arazoa ez da pertsonena, kotizazioena baizik. Mila pertsonatik batek ere ez badu kotizatzen sistema kiebran dago, baina guztiek kotizatzen badute, eta gainera, kotizazio horiek onak badira enplegu duina dutelako, bada orduan gizarte segurantzaz on bat izango dugu.

Zer dago, orduan, erreforma horren atzean?

Helburua pribatizazioa da. 80ko hamarkadan enpresa produktibo publikoak pribatizatu ziren. Orain zer dugu? Zerbitzu publiko eta sozialak. Hor sartu nahi dute eskua, pentsio publikoak gero eta errakitikoago utzi eta jendea behartu plan pribatuekin osatzera. Publikoak ez dio inolako etekinik ematen kapitalari.

AEBetan funts horiek lehertu zuten finantzia krisia, ez dira oso eredu garriak...

Kapitalak esaten dio Europari zer egin behar duen eta estatuek aplikatzen dute. Hori ikus dezakegu Maas-

“Egun, gazte bat 30 urterekin sartzen da lan merkatu prekarioan. Gazte gutxi izango du pentsio duina eta askok ez dute hori ere izango”

trichtetik Pentsioen Liburu Berde-raino. Adibidez, Liburu Berdean lan erreforma egitea gomendatzen zen, eta ikusi dugu zer ondorio izan dituen Euskal Herrian: 176.000 langabe abenduan, azken hamabost urtetako kopuru handiena.

Dena den, pentsio sistema honek erreforma bat behar du?

Baliteke. Baina zergatik ezin du izan zerga bidez finantzatutako sistema? Beste herrialde batzuetan egiten da, kotizazioak alde batetik eta zergak bestetik...

Erreformaren puntu nagusietako bat erretiroa 67 urtera atzeratzea da. Aldiz, gazteen artean gero eta lan gutxiago dago eta prekarioagoa da. Paradoxa al da?

Bai, hor ikusten da zer nolako logika duen erreformak. Egun gazte bat 30 urterekin sartzen da lan merkatuan batez beste, eta modu prekariatuan: sartzen da, hilabete batzuk lan egiten du, ateratzen da, berriz sartu... Gazte gutxi izango du pentsio duina eta askok ez dute hori ere izango.

Horrez gain, Toledoko Itunak hainbat gomendio egin ditu, ez dira garrantzi gutxiagokoak...

21 gomendio egin ditu eta bizpahiru kenduta, gainerako guztiak murrizketak dira. Hor sartzen dira



Beatriz Martxueta

“Arazoa ez da pertsonen adinarena, kotizazioena baizik. Guztiek lan duina edukiz gero, Gizarte Segurantzak ona izango genuke”.

pentsioa kalkulatzeko kotizazio urteen zenbaketa 15etik 25era igotzearena, kontribuzio-prestazioa edukitzeko 25 urte kotizatu beharra, eta 65 urterekin pentsioaren %100 kobratzeko gutxienez 40 urte kotizatu beharra. Baina badaude sindikatu konkretu batzuk erretiroa 67 urtera ez atzeratzeko borrokan zentratu direnak.

Zergatik uste duzu zentratu direla horretan?

Ez dakit, momentu honetan negoziatzen ari dira. Akordio batera iristen badira, Zapateroren Gobernua eta sindikatu horiek “garaile” atera daitezke, bata elkarrizketa soziala posible dela esanez, eta besteak indar erakustaldia egin dutelakoan. Baina egiaz, beste neurriekin *de facto* atzeratuko da erretiroa adina. Ez dugu ulertzen zergatik ez duten beste neurri horien kontra ere borrokatzen. Kalkulu politikoa? Kalkulu sindikala?

CCOO eta UGTekin harremanetan izan zarete erreforma honen inguruan hitz egiteko?

Ez. Guk gure agenda daukagu. Erreformak planteatzen dituen neurri horien kontra gaude, ez neurri bakar baten kontra. CCOO eta UGT negoziatzen ari dira eta akor-

dio bat lortzen badute erreforma babestuko dute, hori guretzat onartezina da.

Urtarrilaren 27rako greba orokorra deitu duzue euskal gehiengo sindikalak. Zergatik hartu duzue erabaki hori?

Grebara goaz langileekiko konpromisoa dugulako eta gure erantzukizuna delako. Eraso larri honek erantzun kolektiboa behar du. XIX. eta XX. mendean borroka eginez irabazi ziren eskubide sozial guztiak murrizten ari dira eta horrek ekartzen duen bakarra miseria eta pobrezia da.

Rodolfo Arenen ustez ez gaude “grebatarako”, zer erantzungo zenioke?

Arduragabekeria dela ere entzun izan dugu. Guk argi daukagu, ez diogu jendarteari bizkarra emango. Pentsio eskubidea defendatzeko, beste eskubide bat erabiliko dugu, greba eskubidea.

“CCOO eta UGTk akordioa lortzen badute erretiroa 67 urtera ez atzeratzeko, erreforma babestuko dute, eta hori onartezina da guretzat”

Erreforma ulertzea ez da erraza, eta gazte bati jubilazioa urrun geratzen zaio. Hasi al zarete lantegietan grebaren inguruan informatzen? Zer inplikazio sumatu duzue?

Jendea argi eta garbi esan behar zaizkio, eta argi duenean, erantzuten du. Egia da gaztearentzat pentsioak urruti daudela, baina esan behar zaio: zuk momentu honetan irabazten duzun diruaren zati bat desbideratzen ari dira hilero-hilero etorkizunean hori izan dezazun. Orain lantegietan batzarrak egiten ari gara, bozketetan ez gara hasi, baina nabari da langileak sekulako eraso gisa hartu duela erreforma hori.

Gurean, aurrekari oso hurbileko bat daukagu Iparraldean, udazkeneko greba orokor gogorra. LABek aktiboki hartu zuen parte. Zer irakasgai atera duzue datorrenerako?

Horrelako eraso baten aurrean mugitu egin behar dela, jendartea, langileria, ikasleak... Frantziako Estatuan ikasleen kolektiboak sekulako indarra du, horietatik ikasi behar dugu, eta horrelako erantzuna eman behar genuke, eraso ere tamainakoa delako. Azkenean, Sarkozyren erreforma onartu egin zen, baina inork ezin du ukatu Frantziako jendartearen haserre kaleetan islatu zela. ■



Latxun 150

Datorren asteko **argia** rekin

Biktimak eta elkarbizitza Bizikidetzaren berriaren oinarriak



— **Elkarrizketa:** Itzuli Ezinezko Bake Prozesuarekin Konprometitutako Presoak
(Andoni Alza, Rafa Caride Simón, Ibon Etxezarreta Etxaniz, Josu García Corporales, Carmen Gisasola, Kepa Pikabea eta Joseba Urrosolo Sistiaga)

— **Iritzi artikulak:**

Jonan Fernandez: “Berradiskidetzaren baldintza etikoak”

Sabino Ormazabal: “Adiskidetzeari buruzko 25 gogoeta”

Kieran McEvoy: Irlandako eta munduko beste esperientzien lekukotasuna

Babcock Wilcox

Beste espekulazio eragiketa baten biktima?

Ezkerraldeko Babcock Wilcoxeko langileak enpresa horren etorkizuna bermatzeko mobilizazioak eta negoziaketak egiten ari dira. Babcock hasieran enpresa pribatua zen, bidea okertu zenean publiko bihurtu zen, etekinak aurreikustean atzera eremu pribatura jo zuen eta orain, mendeurrena betetzeko hamar urte baino gutxiago geratzen zaizkionean, likidatzeko zorian dago.

DANIEL UDALAITZ



ARGAZKI PRESS / JON HERNÁEZ

Babcock-eko langileak SEPIren kontra Bilbon egindako protesta batean.

BABCOCK WILCOX (BW) hornidura ondasunen enpresa Ezkerraldean dago, 1918an sortu zen, eta bere historia luzean behin baino gehiagotan izan da protagonista langile mobilizazioak direla medio; bereziki 1977tik aurrera, pribatizazio prozesuen ondoren. Azken urte eta hila-beteotan mobilizazioei berriro ekin diete, enpresak etorkizun lausoa duelako eta ixtearen mamuak egungo lantalde murriztua mehatxatzen duelako. Egungo egoeraren testuingurua ulertzeko nahikoa da 1973an 5.380 langile zituela eta egun 392 besterik ez dituela adieraztea.

BWren azkena 2011ko maiatzean etor liteke. Maiatza bitartean SEPIren (Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatea), Austrian Energy

(AE) enpresaren eta langileen arteko akordioa indarrean egongo da, ekoizpenean eta lanean jarraitzeko. Akordioa hautsiko balitz SEPIk bere garaian langileei eskaini zizkien bermeak bete beharko lituzke. Berme horiek 300 milioi eurotik gorakoak izan litezke eta 400era ere irits litezke. Beste neurri batzuen artean, SEPIk lan egindako urteko 50 egunetik gorako ordainsariak eskaini zizkien BWeko langileei. Langile gehienak, batez beste, 30 urtetan jardun dute bertan lanean.

Borsig-etik Austrian Energy-ra

Azken hamarkada oso larria izan da BWrentzat. Pribatizazioaren ondoren, atzerriko hiru enpresen esku egon da; enpresok BWen aktiboak

ia doan eskuratu eta milioi askotako laguntza publikoa jaso zuten. Orain, ordainketak eten dituzte, badirudi bertan behera utziko dutela eta, itxuraz, egin duten kudeaketarengatik eta laguntza publikoen erabilarengatik ez die inork erantzukizunik eskatuko. 2001ean Borsig enpresa alemaniarak erosi zuen. Publikoa izan zen garaiko 5.000 langileetatik 650 besterik ez zituen hartu. Orduan 45 milioi euro ordaindu zituela esan zen, baina azkenean askoz gutxiago ordaindu zuten. Diru kutxa publikoek 212.000 milioi pezetan (1.275 milioi euro) jarri zituzten. Zortzi hilabete geroago ordainketak eten zituen eta gaur egun oraindik berri ofizialik ez dago euskal enpresatik alemaniarre-

la mendea duen enpresa

Gauzak aldatzen ez badira, Babcock Wilcox izenez ezaguna den euskal enpresak ez ditu 100 urte beteko —zortzi urte falta zaizkio horretarako—, eskura ditugun datu guztiek hemendik gutxira behin betiko itxiko dela adierazten baitute. Sociedad Española de Construcciones Babcock&Wilcox —hori da enpresaren jatorrizko izena— 1918ko martxoaren lehenean zabaldu zuten Bilbon. Enpresaren hasierako kapitala 20 milioi pezetakoa (120.000 eurokoa) izan zen eta euskal finantzari talde batek sortu zuen Babcock&Wilcox Erresuma Batuko enpresaren laguntzaz. Euskal enpresa berriak izen hori hartu zuen, baina enpresa ingelesak enpresaren akzioen gutxiengoa hartu zuen, bere patenteak utzi zizkion eta Galindo bailaran, Nerbioi ibaiaren ezerraldean kokatu zen enpresa hura sustatzeko konpromisoa hartu zuen.

la mende bateko historian hainbat gorabehera izan ditu. Urte askotan eremu pribatuan etekinak lortu eta

gero, 1978an, 5.000 langile baino gehiago zituenean, ordainketak eten zituen. 1980an eremu publikora igaro zen. Hamar urte gogor eta gero, berriro etekinak lortzen hasi zen. 1996an, Espainiako Gobernuan PP alderdia zegoela, atzera pribatizatu zuten eta Borsigi enpresa alemaniarrari saldu zioten. 2001ean diru kutxa publikoak 1.275 milioi euro eman behar izan zituen Babcock Borsigen 673 kideko lantalde murriztuari eutsi ahal izateko. Enpresa Borsigi saltzea hitzartu eta zortzi hilabetera ordainketak eten zituen. Tartean, euskal enpresatik alemaniar enpresa nagusira joandako 21 milioi euroekin gertatutakoa ez zen argitu. Bigarren pribatizazioa egin zen gero eta enpresa ATB (Austrian Energy) enpresak erosi zuen; 2004an 100.000 euro ordaindu zituzten eta 125 milioiko laguntza publikoa jaso zuten. Gaur egun ordainketak eten ditu eta 392 langile dauzka.

ra bidalitako 21 milioi euroei buruz.

2004an ATB enpresa austriarraren esku geratu zen BW. Langile kopurua 440 pertsonetara murriztu zuen. 100.000 euro inguru ordaindu zituen, BWren ondasunak 70 milioi eurokoak izan arren. ATBk ere ordainketak eten zituen. Ondoren Austrian Energyk erosi zuen euskal enpresa, lehenago ATB zen enpresa berak, hain zuzen. Langile kopurua gaur egungo 392 pertsonetara mugatu zuen. 125 milioi euroko diru laguntza publikoa jaso zuen; diru laguntzaren zati bat erretiro aurreratutako ordaintzeko erabili zuten eta gainerakoa enpresaren ondasunei erantsi zieten. Orain, AEk ere ordainketak eten ditu.

AEren espekulazio ariketa?

AEk BWrentzako zeuzkan industria planek porrot egin dute erabat. Besteak beste, ingeniariaritzaren alorra eta laborategia desegin dituzte, puntakoak eta errentagarriak ziren arren. Nagusiki balbulak eta galdarak ekoiztuz, Txina gasifikatzeko lanean aritu da enpresa. Baina Txinako kontratua amaitu eta gero, eskaera zerrenda hutsean da gaur egun. 2008an eta 2009an, urteroko galerak 22 milioi eurotik gorakoak izan dira.

Hala, inbertsiorik gabe, industria planik gabe, prestakuntzarik gabe, enpresa austriarrak 2011ko maiatz bitartean, SEPIrekin hitzartutako bermeak bertan behera geratu arte,

BW zainketa intentsiboko unitatean izango duela ondorioztatu dute langileek. Eta hortik aurrera zer? AE 2011ko maiatzera inbertsiorik egin gabe iristen bada, handik aurrera merkatuak utziko dion erabakiak nahiz zuzendaritzak nahi dituenak hartzeko askatasuna izango du eta, gainera, orube oso tentagarriak izango ditu bere esku.

Sindikatuak diotenez, austriarrek hamar nabe saldu nahi dituzte, han industria poligono bat egin dadin. Poligono horren kudeaketan SEPI, Bizkaiko Foru Aldundia eta Sestao-ko Udala daude. Beraz, berebiziko paradoxa gerta daiteke: austriarrek doan lortu zutena jatorrizko jabeek saltzea.

3.000 milioi euro diru publiko sartu dituzte BWn

Diru kutxa publikoek azken urteotan 3.000 milioi euro inguru sartu dituzte BWren, pribatizazio prozesuetarako, erretiro aurreratutako eta abar. 2003tik hona 1.500 milioi baino gehiago sartu dituzte, baina 1978an ordainketak eten eta 1980an nazionalizatu zutenetik, guztira 3.000 milioi baino gehiago izan dira, sindikatuen esku dauden datuen arabera. Erretiroa aurreratzeko lehen plana 1979an egin zen eta ordutik hona halako beste dozena bat plan izan dira. Erretiro aurreratu bidez, 1979tik, BWko lanpostu gehienak desagertu dira. ■



ARGAZKI PRESS / MONIKA DEL VALLE

BWko enpresa komitearen kontzentrazioa auzitegi aurrean, EEEaren inguruko salaketa bat deliberatzeko unean.

«Langileok argi daukagu pare bat hilabetea, gehienez, hau itxi egingo dela»

Ricardo González bilbotarrak 21 urte egin ditu Babcock Wilcox-en. Ordezko atalen saileko arduraduna da gaur egun; uneon, bezeroei eskaintzeko ezer ez daukala esatea beste zereginik ez du kasik. Enpresaren azken hatsa barrutik nola bizi duen azaldu digu solasaldi honetan.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

BWn eman duzun denboran enpresa publikoa zen garaia bizitzea tokatu izan zaizu, eta baita geroko pribatizazioak ere. Hala da. Esku batetik bestera ibili gara, eta azkenerako ez dakizu nor den zure jabea.

Tira, oraintxe Austrian Energy-ren (AE) parte zarete, ezta?

Bada, ez dago hain argi. Irai-lean agiri bat bidali zuten, esanez gauzak oso ondo zihoazela. Eta bat-batean, taldeko beste enpresa batek, Australian dagoenak, ehunka milioi euroko galerak eduki zituen txarto atera zitzaizkielako esku artean zituzten proiektu batzuk. Horrek domino efektua eragin du, eta egun batetik bestera austriarrek esan zuten ordaintzeak eteten zituztela. Eta nork bereari eutsi behar ziola. Zer gertatzen da? Ordu-ra arte BW erabat austriarren menpe zegoela. Nik dagoeneko ez dakit ziur zuzenean austriarrak eurak ziren, edo SEPI, baina aldiro aldiro diru eske joan behar ginen haiengana, bestela ez geneukan ez materiala erosteko, ez soldatak ordaintzeko...

Eta zuek kobratu egin duzue?

Horretan zortea izan dugu eta behintzat abendukoa kobratu dugu. Gabonetako paga zor digute, hori bai. Esan zuten azaroa izango zela



“Ordaintzeen etena aurkeztu zenetik, administratzaile judizialek erabakitzen dute gastu bakoitza”.

kobratuko genuen azken hilabetea, baina geroztik diru apur bat sartu da, kobratzeke genituen zenbait gauza... Momentu honetan, ordaintzeen etena aurkeztu zenetik, administratzaile judizialek erabakitzen dute gastu bakoitza. Kobratu badugu haiek erabaki dutelako izango zen.

Maiatzera arte irauteko akordio bat dago, baina elkarrizketa hasi aurretik esan didazunez honek ez du hain luze iraungo.

Nahiko argi dago. Gaur egun ez dugu lanik egiten, nik honezkero ez diet eskaintzarik egiten bezeroei. Badaude itxi beharreko kontutxo batzuk, baina ez da lan berririk sartzen. Langileok argi daukagu pare bat hilabetea, gehienez, hau itxi egingo dela. Nire iritziz, jokaldia txarto atera zaio Austrian Energy-ri, maiatzaren 31ra arte iraungo gurela pentsatzen zuten, eta horren ostean akordiotik libre egongo ziren.

Eta ezin daiteke gertatu AEk zerbait egitea maiatzaren 31ra arte nola edo hala eusteko?

Baliteke, baina oso zaila da hori. Lantokira goaz eta ez dugu ia ezer egiten zortzi orduz, han egon baino ez.

Bere garaian enpresa publiko egin zen hondamenditik salbatzeko.

Ez zait iruditzen berriz gertatuko denik. Abenduan Eusko Legebiltzarrera joan ginen langileok, eta han gure aldeko mozio bat onartu zuten, PSE ez beste guztien botoekin. Baina horren ondorio bakarra da esatea Legebiltzarra gure alde dagoela, haien babes moralak daukagula. Baliteke beste enpresaren bat sartzea, dirua mahai gainean ipintzea eta BW salbatzea, baina ez dut uste. ■

Hizkuntzak musikan

Ingelesez kantari, estiloak eskatzen duelako

Zergatik abesten dute ingelesez euskal musika taldeek? (gaztelaniaz edo frantsesez aritzea beste baterako utziko dugu). Berako Sexty Sexers, Bilbo Ezkerraldeko Ama Say eta Elgoibar eta Azpeitiko Jon & Sugramas taldeei eskatu diegu iritzia eta haien bidaia musikal-linguistikoa kontatu digute. Sexty Sexersek Mikel Larratxek oharra egin digu hedabideoi: kazetariok musika taldeak koarentenan jartzen omen ditugu ingelesez abesten badute eta eusko labela eman euskaraz ari badira. Kantuen letrei, aldiz, arreta gutxi jartzen omen diegu.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Jon & Sugramas

"Estilo batzuk hizkuntza bati lotuta daude"

Jon Gurrutxaga (zutik) Jon & Sugramas rock blues taldeko kantaria eta letragilea da, Arima Beltzan aritua. Orduan euskaraz egin zuen lan, eta orain, *Jon & Sugramas* izeneko azken diskoan, lehen aldiz, ingelesez egin dute. Txikia zenean ez zekien ingelesez, baina Beatles taldea ikaragarri gustatzen zitzaion. Ingeles britainiarra bere erara ahoskatzen zuen eta gogotik abestu. Orain ingelesa badaki eta hizkuntza horretan lan egiteko gogoa ase du. Ingelesez sortu eta abestearen arrazoiak gora eta behera, hiru ideia azpimarratu ditugu: ingelesez abestea ohitura bihurtzea, fonetika, eta atzerrian aukerak izatea. Gurrutxagak lehenengo biak nabarmendu ditu eta hirugarrena, hain zuzen, hirugarren mailan utzi du. Kantariak musikaren %95 ingelesez entzuten du, gustatzen zaizkion musika estiloak (rock klasikoa, rock bluesa, bluesa...) hala sortzen baitira. Oso ohituta dago hizkuntza horretara, ingelesa ez da arrotza berarentzat. Ohitura batetik, eta belarrira nola egiten duen, bestetik. "Euskaraz sinesgarria egin daiteke rocka eta rock bluesa, eta uste dut lortu genuela hori Arima Beltzarekin. Baina jendeak esaten dizu belarrira hobeto egiten duela ingelesak. Agian kaxotx artean esan beharko nuke esaldi hori, esan nahi dut ez dela gauza bera trikitia euskaraz ala japonieraz entzutea. Trikitia beste zer edo zerekin nahastuta euskaraz egitea gauza bat da, eta beste bat rock bluesa, rock klasikoa euskaraz egitea". Pragan, esate baterako, jazz pop talde bat entzun zuen ingelesez eta txekieraz, eta azken hizkuntza horretan gustura entzun zituen abestiak. Aldiz, Gurrutxagak rock bluesa (berak lantzen



GAZTELUPEKO HOTSAK

duen estiloa) frantsesez entzun du eta ez zaio gustatu; "estilo batzuk hizkuntza bati lotuta daude, ingelesez izan behar dute". Horrekin ez du esan nahi euskaraz egin ezin denik, baina adibidez, kanpora joateko zailagoa litzateke. Hara, ingelesez abestearen arrazoiak artean Gurrutxagak azkenerako utzitakoa. Garbi dauka atzerriara begira egotea baino abestiak ondo egitea garrantzitsuagoa dela. Alabaina, kanpoan ingelesa ez den hizkuntza arituta arretarik ez dizutela ipiniko dio Gurrutxagak: "Ingalaterran bluesa frantsesez egiten baduzu, igoal hanka egingo dizute, eta Alemanian ingelesez egiten baduzu, bada, ulertuko zaituzte. Ingelesarekin mundu guztian ibil zaitetzke".

Sexty Sexers

"Ingelesa ADNan daramagu"



SEXTY SEXERS

Taldeko letragileak, Mikel Larratxek (eskuinetik aurrena), esan digu euskaldun musikariak izanda ingelesez zergatik egiten duten galdetuz gero talde guztiek gauza bera erantzungo digutela: musika estilo horren %95 ingelesez entzuten dutela. "Horrek izugarri markatzen du, musika mota bat fonetika edo hots batzuekin lotuta geratzen da. Ingelesa hor gelditzen da, ADNan daramagu". Horren adibidea da kontatu digun bitxikeria: Bartzelonan bi taldek jo zuten euskaraz, bata Sexty Sexers. Biak entzun eta gero entzule bat hurbildu zitzaion Larratxeri eta galdetu zion ea zergatik abestu zuen ingelesez.

Taldeak musika ibilbidea euskaraz egin du gehienbat azken diskora arte. *HeroMantra* lanean berriz, inoiz baino ingeles gehiago erabili dute. Larratxek ederki azaldu digu ingeleserako pausoa nola izan den. Bidaia linguistikoa instintiboa izan omen da. Abestia egiten ari direla, letra sortzeke dagoela, entseguan esanahirik gabeko soinuak eta oihuak erabiltzen dituzte, ingelesezkoak denak. Larratxeren lana izaten da esanahirik gabeko oihu horiek euskarazko letra zentzudun bihurtzea. Bada, azken diskoan, euskarara beharrean ingelesera egin dute jauzi. Larratxeren ustez, belarrira ondo egiteko hizkuntza guztiek ez dituzte ezaugarri berdinak, eta adibidez gaztelaniak, euskararekin alderatuta, ez omen du belarrira ondo egiten beraien musika estiloan, alegia, rock & rollean. Hizkuntza batek edo besteak belarrira ondo egiteaz ari gara, baina ingelesak ez al ditu atzerirako ateak irekitzen? "Arrakasta izango ote duzun ildotik hizkuntza bat edo beste aukeratzea ez da ohikoa, horrelako hotsasunarekin aritzea ez da logikoa".

Gauza bat da ingelesez abestea erabakitzea eta bestea ingeles maila. Nola moldatzen dira euskal musika taldeak sarri hirugarren hizkuntza duten horretan? "Rock & rolla ez da inoiz literaturaren paradigma izugarria izan, ez du eskatzen hizkuntza maila izugarria". Eta mezuaren garrantziaz edo garrantzi ezaz aritu gara. Larratxek, adibidez, Bob Dylanen Donostiako kontzertua gogoratu du; zenbat jende hondartzan eta zenbatek ulertuko ote zuen kantatutakoa. "Gerta liteke taldeak ingelesez abestea eta bateria joleak ingeleza ez jakitea".

Ama Say

"Joko fonetikoa gure marka da"



AMA SAY

Bilbo Ezkerraldeko talde honen hizkuntz bilakaera, gutxi asko, Sexty Sexers taldearen alderantzizkoa izan da. Ingelesez hasi ziren abesten eta gero euskarari heldu diote, kantu berean nahasten dituzte bi hizkuntzak. Euskara, taldeko Gontzal eta Ibon Bilbao anaiak euskaldundu ondoren iritsi da. Gontzal Bilbaok (ezkerretik bigarrena, eta taldeko letragi-leetako bat) adierazi digunez, musikan euskarara jauzi egitearen "errua" Karlos Alonso taldekide ohiarena da. Hark animatu zituen anaiak euskara ikastera eta gero probak egiten hasi ziren, "ingelearen eta euskararen artean joko fonetikoa egitea zen helburua". Fonetika zen beraz garrantzitsuena? galdetu diogu: "Mezua oso-oso garrantzitsua da guretzat, hitzak, alegia". Ezin bata bestearen gainetik jarri hortaz. Bilbaok joko fonetikoa dioenean, ez da ari bi hizkuntzetara mugatzeaz, euskaraz eta ingelesaz gain, frantsesezko eta gaztelaniazko hitzak ere erabiltzen baitituzte, "eta txinera erabiltzea ere gerta liteke". Bilbaoren ustez, bi hizkuntzak nahastea berezia da, "joko fonetiko hori gure kutsua da, gure marka".

Ezin esan Ama Sayk ingeleza darabilenik preseski atzerrian aritzeko, ingelesez hasi eta gero euskararako bidea egin baitute: "Ingelesa ez dugu horretarako erabili, guk nahi duguna egiten dugu".

Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

Euskara irakurle plazak Argentinan eta Txilen

ETXEPARE INSTITUTUAK Txile eta Argentinarako euskara irakurleentzako plazak atera ditu. Txileko lau unibertsitatetan eman beharko ditu eskolak euskara irakurleak eta Argentinan berriz, unibertsitate batean. Aurkezteko epea jada iraungita dago.

30 liburu soziolinguistikaz

TXERRA RODRIGUEZEK www.blogak.com/garaigoikoa blogean euskaraz dauden soziolinguistikari buruzko 30 liburu proposatu ditu.

Euskal Herriko egileenak zein kanpokenak aurki daitezke; hala nola, Estibaliz Amorrrortu, Xabier Erize eta David Crystalenak.

‘Euskara aniztasunean’ jardunaldiak

TOPAGUNEAK urtarrilaren 25erako antolatu ditu jardunaldiak. Egoera soziolinguistikoko berria izango dute oinarri hizlariak, hau da, bi hizkuntza egiten ziren denbora alde batera utzi eta aniztasun berriaz arituko dira. Hona jardunaldietarako Topaguneak luzatu dituen galderetako batzuk: “Baina, guztion arteko komunikazio eta kohesio hizkuntza euskara al da? Zein bide egin da norabide horretan?”

Eta zein bide berri jorratu beharko lirateke?”. Informazio gehiago. www.topagunea.org.

www.gasteizen.com

GASTEIZKO euskaldunak informatzeko asmoz sortu berri den bloga da. Aurkezpenean dio egunero berri-tuko dutela, eta erabiltzaileen ekarpenak ere gustura hartuko dituzte.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Distentsioa eta ekonomia

ETAk borroka armatua mantendu duen azken berrogeita hamar urtetan, leporatu izan zaio Euskal Herriko kapitalen ihesa eragitea, hala nola enpresa berriak etortzeko, euskal enpresariak inbertsio berriak egiteko eta turismoarentzako balazta izatea. Erakunde armatuak enpresariak “zerga iraultzailea” mantendu izana –tamalez hainbat hildako eragiteaz gain– aitzakia gisa erabili izan da inbertsioak murriztu edo inbertsio hori Euskal Herrikan kanpoko beste leku batzuetara eramateko.

Borroka armatua mantendu izanak zenbait enpresa aktibitateentzat giro onena ekarri ez duen arren, egia da ere, asko puztu eta manipulatuta dela horri buruz erakunde, enpresa-elkarte eta alderdi politikoen aldetik. Zeren-eta errealtatean, aktibitate armatua egonik ere, multinazional eta enpresa gehienek Euskal Herriko aktibitatearekin jarraitu dute, bertako esku lana kualifikatua eta errentagarria delako. Hala ere, baliteke Euskal Herrikan kanpora joan diren enpresarien edo gure lurraldera etortzeari utzi dioten enpresa eta inbertsioen kasu zehatzak egotea.

Testuinguru horretan “nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor, orokorra” eta “konfrontazio armatuaren amaiera-rekiko duen konpromisoa” iragartzen duen ETArekin azken komunikatuak, Euskal Herrian garapen ekonomiko eta enpresariala ahalbidetu dezakeen distentsiorako aukera irekitzen du. Ondorioz, inportantea litzateke euskal enpresariak eta beren elkarteak, beraiei eta herri honen interesengatik, eszenatoki berria babestea eta Gobernuak presionatzea –erreforma anti-sozialekin egiten duten moduan–, guztien onurarako sendotu dadin. Distentsio totala negoziatu eta atzera ezina izan dadin.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak gipuzkoa.euskara.net-en esanak:

“Teknologia berriak lagun, tramite administratiboetarako, informazio trukeko eta formazioetarako aukera konpartituak izan baditugu egun, baina egiten al dugu, egin behar baldin badugu, elkarrekin esku-hartzeko programarik Gipuzkoako udal guztien artean? Eta EAEko guztien artean? Eta Euskal Herriko guztien artean?”

‘Bai, bat’, esan dit nire beste lagun horrek. *Euskarazko Produktuen Katalogoa*. Ongi koordinatuta portzietan! Eta besterik?

Besterik izan zitekeelakoan nago ni: bat famili bidezko transmisioaren mezuak zabaltzeko (Oarsoaldekoek egin dute proposmena); bestea gazteek gida-baime-na euskaraz ateratzeko... Besterik izatea ere onuragarria izan liteke baliabide urriagoak izango ditugun honetan.

Mementoz, ordea, (hamarkada batzuen ondoren) hori da gure koordinazioaren katalogoa”.

Kontsentsurik handienaren ezintasunak

ETA-K bere jardun armatua utzi behar du. Euskal gizarteak gaur egun ez dago eskaera horrek adina kontsentsu biltzen duenik. Eragile bakoitzak bere arrazoiak ditu, baina baieztapen horrek euskal herritar ia guztien adostasuna biltzen du. ETAk ez du oraindik ase eskakizun hori, bidean da edo egon liteke, baina oraindik ez ditugu bere benetako asmoak ezagutzen, ez du argi eta garbi adierazi. Baina badira bide horretan egon litezkeen zantzu ugari, garrantzitsuena ezker abertzaleak berak jarritako testuingurua; aurreko prozesuetan ez bezala, hori da garrantzitsuena oraingoan. Eta bide horretan, inoiz esku artean izan gabeko egoera eskaini berri du ETAk: su-eten orokor, iraunkor eta egiaztagarria.

Beraz, gai baten inguruan inoiz izandako kontsentsu handiena biltzen bada eta agintariak, alderdi eta eragile nagusienek berau bideratzeko gaitasunik erakusten ez badute, zalantza handiak daude gizarte horrek etorkizunean modu bateratuan egin dezakeenaz.

Argi dago bakoitzak bere amaiera eta bilakaera emango liokeela gatazkari, hori logikoa eta normala da, baina hori bezain logikoa da gutxieneko oinarri batzuetan adostasuna bilatzea: bortizkeria adierazpenen desagerpena, eskubide guztiak gutzientzat, bizikidetzaren berriaren ardatzak, gizartearen gehiengoaren borondatea, gutxieneko memoria partekatutaren eraikuntza... Horri guztiari ekin egin beharko zaio, berandu baino lehen gainera; baina ez dena batera, prozesu bat da eta prozesu izaera eman behar zaio. Ez du zentzurik ETAk bere jarduna ixten duela iragarri arte zain izatea. Hori



ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO

prozesu bateratu horretarako borondatearik ez izatea da, eta joko horretan luze mantentzen denari herritarrek hautesontzian larrutik ordainarazi beharko lioke. Ordua da gatazka bortitzari irtenbide bateratua ematen hasteko, desberdintzen gaituztenetan bakoitzak berea defenditzen jarrai dezan.

Aldez aurretik irudika gaitza baziurdien ere, eta eratutako kanpaina mediatikoaren gainetik, ETaren agiriak beste behin ere lortu du giro berri bat sortzea, gutxienez Euskal Herrian. Epe laburrean, oster, oztopo eta arazoak ugariak dira.

EZKER ABERTZALEAREN legalizazioa da arazo premiatsuena. Giza legezkotza eta bake prozesuarekiko eraginkorra, honek aurkeztu beharreko alderdi berria legeztatzea litza-

Denak adierazten du ezker abertzaleko hautesplataformen "hau bai hau ez" justiziaz kontrako jolas judiziala izango dugula berriz begien aurrean

teke, baina adierazpen esanguratsuenei jaramonik egitekotan, ez dirudi orain halakorik gertatuko denik. Denak adierazten du ezker abertzaleko hautesplataformen "hau bai hau ez" justiziaz kontrako jolas judiziala izango dugula berriz begien aurrean. Ezker abertzaleak zein zirrikitu baliatu ahal izango duen ikusi beharko da eta zirrikituak uzteko Espainiako Gobernuak erakusten duen malgutasuna. Sinatzaileek

agertutako balio estrategikoari garrantzirik kendu barik, Gasteizen ezker abertzaleak, Eak eta Alternatibak aurkeztutako akordio politiko berriak eskain dezake zirrikituetarako aterperik.

PSOEren Gobernuak egoera hau guztia baliatu nahi du 2012ko Espainiako hauteskunde orokorretarako, baina badirudi oraindik ez dela baliatze horri ekiteko garaia. Ezker abertzaleak ere kosta ala kosta parte hartu nahi du udal hauteskundeetan, baina akaso berak ere modulatu beharko du hauteskundeei buruzko diskurtsoa, horretan indar gehiegi jartzeak desilusioa ere sor dezakeelako.

Egia esan, eta ez dakit ondo zein tamainatan, epe ertainera ezker abertzalearen arriskurik handiena balizko desilusioan dago. Zer gertatuko litzateke denok uste dugunean ETarenak dagoeneko atzera bueltarik ez duela, berriz borroka armatura itzuliko balitz? Alde horretatik ezker abertzaleak eta ETak euskal gizartearen diren konfiantza arazo horiek gaintzen lagunduko duten arrasto gehiago jarri beharko dituzte ibilbidean. Lizarra-Garazi eta Loiolako ahaleginak herriaren buruan dira oraindik eta horien memoria lausotzeko urratsak behar-beharrezkoak dira oraindik ere.

PELLO ZUBIRIA

Kaleko istiluak: Estatuak gazteak kanpo laga ditu

Tunisian eta Algerian hamarka herritarren heriotza eragin duten istiluek, Frantziako hiri auzuneetako liskarrek, Grezian errepikatzen diren matxinadek, Tailandiakoek... zerikusirik ba ote dute elkarrekiko? Handia, Alain Bertho antropologoaren aburuz. Itxuraz zio oso ezberdinek piztu dituzten arren, sakonean antzeko arazoa salatzen dute.

NOLA LITEKE TUNISIAN SUA PIZTU eta berehala garrak Algeria osora zabaltzea? Baina zer daukate ikusteko berrikitan gerra zibil errukigabea ehunka mila bizi galdu dituen Algeriak eta Magrebeko sistemarik egonkorren bezain patxadatsuena omen zeukan Tunisiak?

Istiluen irudi zirraragarriak bata bestearen ondotik eskaintzen zaizkigularik hedabide guztietan, azken liskarrak aurrekoa ahantzazten digu. Hasteko, irudi bakoitza testuinguruan kokatzeko lanak dauzka ikusleak. Bestalde, karrikako matxinada espontaneo inprobisatuak esplikatzeke zailtasunak dituzte beti analistek. Eta, azkenik: zein hari logikoz lotu batekoak eta bestekoak?

Alain Bertho antropologoak pista interesgarriak eskaintzen ditu. Paris-VIII Saint-Denis unibertsitatean irakasle ari da, berrikitan *Le temps des émeutes* (Istiluen aroa) liburua plazaratu du eta *Anthropologie du présent* blogean mundu osoan gertatzen diren liskarrei gertuko jarraipena egiten die.

Frantsesezko liburuen aktualitatea jorratzen duen *Non Fiction* (www.nonfiction.fr) gunerako galdezka hurbildu zaio Mathieu Gaulène. Hark hautatua da lerroburua: “Istilua da leio bat zabaltzen dena kanpok munduaren eta Estatuaren artean”.

Gaurko istiluek ez dute, Berthoren iritzian, duela gutxi artekoen izaera bera. Lehen ere baziren garai batzuk besteak baino liskartsuagoak, XVIII. mende bukaeran edo XIX.eko erdialdean (1848 famatua barne) ikusi zen bezala, beranduago Lehen Mundu Gerraren ostean, gero 1960ko hamarkadan. Oraingoak, ordea, ezberdinak bide dira.

Azken urteetakoak pertsonean zentratzen dira mugimenduetan eta egituretan baino, subjektibotasunak hartu du gaina. Bestetik, matxinadotan helburua ez da boterearen jabe egitea baizik eta botereari une batean esatea “aski da, marra hone-tatik aurrera joaterik ez dugu onartzen, ez gaitzazue probokatu”.

Horren frogara ugari ikusten du Berthok urteotan. Madagaskarren iaz istilu latzak izan ziren, gobernua aldatu zen baina hala eta ere herritarrak konponbidetik kanpo geratu ziren. Berdin Kirgizistanen, agintea eskuz aldatu arren istiluek jarraitu egin zuten. Bangkok-en protestariak ez dute boterea eskuratu nahi, hauteskundeak eskatzen dituzte.

Berthok garrantzia berezia ematen dio herritarren kanpo sentitze horri, uste baitu ez dariola sarritan mugimenduoi egotzi zaien apolitikotasuna. Gaur arteko politika klasikoan alderdiek zuten zeregin nagusia, haiek zeukaten helburutzat Estatua

*Washington Examiner*ek sarean utzitako argazki honetan Tunisian gertatu diren liskar ugarietako bat ageri da: poliziek mutiko gazte ikaratua daramate atxilotuta, atzean guardietako batek pistola erakusten duela. Bata bestearen ondoren gertatzen dira matxinadak munduko bazterretan, ez bada bizimoduaren garestitzeagatik, etxebizitzak urri direlako, argindarrak ezagatik, eta beste. Haietako irudi nabarmenenak baizik ez zaizkigu iristen, askotaz oso berandu enteratuko gara eta beste batzuk ez ditugu sekula ezagutuko. Iaz Bangladeshen haur obreroek egindako greba eta matxinadakoak bezala. “Antzinako klase borroka –dio Alain Berthok– fabrikako hormetatik kanpo zabaldu da, gaur egun zampaketa bera lantegietatik bizi osora hedatu delako”. Antzina “klase kontzientzia” esaten zena desagertu delarik, beste nortasun politikorik ezear, ordainetan kaleko liskarrak sartu dira orain usinetan.

aldatzea, herritarren izenean Estatuaren jabe egitea. “Baina gaur egun partiduak ez dira ezeren bitartekari, haiek erabat Estatuaren parte dira eta aldiz jendeak kanpo daude. (...) Jendea ez da axolakabea, baina politika modernoan ez gaude gehiago”.

Munduko istiluen haria

Urteotako hauteskundeetan handituen abstentzioa herritarren *kanpotasun* horretatik esplikatzen du Berthok. Estatuak globalizazioa kudeatu beharra daukate. “Greziko gobernuak ez dizkie kontuak ematen nagusiki herritar greziarrei, batik bat mundu mailako indar ekonomikoei erantzun behar die, Europari...”. Egoera zail horretan, Estatuak gero eta usuago darabiltza burokrazia, autoritarismoa, mespretxua.

Jendeak ulertu du kanpo dagoela, eta kanpoan kokatu da: abstentzioa, greba. Estatuak, ordea, ezin du jasan luzaz herritarrak kanpo egote hori. Haien bila hasten da, batzuetan kanpaina bidez (“Botorik ez ematea ez dago ondo”). Baina poli-ziaren probokazioak ere, askotan gazteak tratatzeko agenteek daukaten modu disziplinario, mespretxuzko eta erasokorra, logika berean sartzen da: Estatua atera da gazteen bila. Bere moduan.

Kaleko istiluak logika horretatik ulertzen saiatzen da Bertho. Ez da



beti erreza. Kanpo sentitzen diren herritarrek ezberdin agertzen baitute haserre. Frantziako auzunee-tako istiluetan, 2005ean, ikerlari asko harritu ziren hitz gutxi zelako, pankartarik ez, kontsignarik ez, negoziaketa programarik ez. Ekin-tza da hitza. Ekintzak, mugimen-duak, irudiak. Bideoak, argazkiak. Eta sua karrikan, sua gauez, kagu-lak, kaputxak.

Estatuak arazo latza dauka gazte-riarekin. Lehendik herriak bezala, orain gazteek ihes egiten diete agin-tariei. Gazteek etorkizun bat nahi dute eta agintariak ezin diete eskaini. XX. mendeko itxaropen argi guztiak itzali dira, mitologia iraultzailea barne. Lurra planeta bera ageri da amildegira erortzeko bezperan. Ber-

thok dioenez, “bada gaurko mun-duan gazteekiko agresibitate bat konparatu ezin dena aurretik sekula ezagutu denarekin. Gaur ez daukazu munduan herrialde bakar bat une batean edo bestean unibertsitateak irakiten ikusi ez dituen”.

Estatua indarrez ari da erantzu-ten orain artean. Istiluen kontrako polizien militarizazioa aipatu du Berthok. “Poliziaren eta gerraren arteko tarte laburtzen ari da edo-non”. Poliziek armadari hartu diz-kioten materialak eta estrategiak, hirietan kontra-gerrilla egiten dute, itxura kolonialeko erasoak hirietan.

Arazoa da gerran armadak bada-kiela noizbait negoziatu beharko duela arerioarekin. Poliziak, aldiz, ez du negoziatzen, solaskiderik ez du,

etsaia suntsitu edo espetxean sartu.

Antropologoak aitortzen du asko ikasi duela urteotan ikasle eduki duen semearekin. Sozializazio politi-koan hezitako belaunaldientzako oso neketsua baita izaera berriko mugimenduok konprenitzea. Mili-tantzia politikoan urteak eman dituen aita ikerlaria saiatu da ulertzen nola funtzionatzen zuten lizeotar gazteok, mitinik gabe, kontsignarik gabe. “Antolatze modu tradi-zionalak oso astunak geratu dira”.

Alain Berthok hogeita hamar urtez goiti zeramatzan auzuneak eta krisi politikoak ikertzen, horrekin batera berak gazte denboran bizi-tako kultura eta antolaketa politikoa *dekonstruitzen*. “Baina 2005 eta 2006ko istiluekin esnatu naiz, hemen ikusitakoekin. Denbora gehiegiz ari-tua nintzen kanpotik begira, gauza handirik ikustera iritsi gabe”. Istiluak ikertzen ari zen ordura arte jakina zenarekin, baina bidea beste bat zen: berria zena hasteko ezagutu egin behar zen, gero esplikatze.

Eginak zeuzkan ikerlanak sarean ipini zituen libre. Bildutako material guztia denen begien aurrean, istilu-etan protagonistak zirenek eskura-gai, hesi akademikoak apurtuta. Ordainetan, asko irabazi du Berthok. Bere orriek daukaten bisitek erakusten diote matxinatuen interesak une bakoitzean nondik dabilzan. Ikerlariak bere fruituak eskaini ahala gazte askok beren informazioak ematen dizkiote.

“Nire blogak interes hori dauka: nihaur gertakizunetatik kanpo ez aurkitzea, eragileekin solasean gerta-kizunen garaikide izatea”. Programa txarra ez, kazetari batentzako ere. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Joxe Iriarte, *Bikila*

Ezina ekinez egina

Errepikatu gezur bat mila aldiz, eta handik gutxira egia bihurtuko da”. Joseph Goebbelsek asmatu-
leloa dotrina egin dute boterean daudenek. Esate baterako, instituzioek garapen jasangarria eta herritarren partaidetza bultzatzen dituztela gezur borobila izanik, ontzat ematen da bazter guztietatik errepikatzen digutelako.

Mila adibide jarriko nuke, baina batekin geratuko naiz. Publi-propagandaren arabera, Eusko Jaurilaritzako Lurralde Antolamendu berria eredugarria izan beharko genuke jasangarritasunari dago-kionez. Baina, Donostialdeko Lurralde Plan Partziala delakoa aztertuz gero (gaintzestekoak ere antzekoak izango dira) ikusten da baieztapen hori ez dela egia. Areago, desastre hutsa dela ageri da. Gainera, ziria, isilka-misilka, inongo eztabai-darik gabe (informazioa Internetera eta erakusketa engainagarri batera mugatuz) sartu nahi digute.

Zorionez, badira Interneteko berriak aztertzen eta herritarrei helarazten dituztenak, eta lagun horiei esker, duela bi hilabete eskas jakin genuen Donostialdeko Lurralde Plan Partzialak –jadanik onartua dagoena– Oiartzun herrian eragin handia izango duten ekimenak biltzen dituela. Hala nola, bigarren Ingurabidearen luzapena eta Lezo-Gaintxurizketako eremuan jarduera estrategiko eta logistikoetarako plataforma. Lehenengoak bete-betean harrapatzen du Oiartzungo bailara, halaber, plataforma logistikoak, herriko plangintzan neurri batean babesturik dauden eremu zabalak hartzen dituelarik.

“Ttakun-ttakun... Oiartzun arriskuan!”. Txalaparta informatikoaren eta kartel batzuen bidez herri batzarra konbokatu genuen. 200 bat herritar, baserritar zein auzotar edo kaletar agertu ziren, denak guztiz asaldaturik entzuten ari zirenekin: “Donostiako bigarren gerri-



DANI BLANCO

koa egin berria eta beste luzapen bat egin nahi dute gure bailararen erditik? Gainera, beste plataforma logistiko erraldoi bat egin nahi dute? Ahaztu gabe, AHTren obrak hastear daudela? Horrek ez du ez hankarik ez bururik!”

Batzarrean lan-talde bat sortu zen. Mehatxuari aurre egiteko modurik eraginkorrena, herritarrei informazioa helaraztea izan zen. Nola? Auzoetan batzarrak antolatuz, etxez etxe banatzeko esku-orriak eginenez, hondamendia irudikatzen duten panelak eta argazkiak toki guztietan ezarritik, eta batez ere, ahalik eta alegazio gehien bilduz, plan honen erantzule diren Eusko Jaurilaritzako Ingurumen, Lurralde Antolaketa, Nekazaritza eta Arrantza Sailera eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzeko.

Hasieran ezina zirudiena lortu dugu: 7.500 alegazio biltzea –horietatik 3.200 Oiartzunen bizi diren herritarrenak: errodaren %40 ordezkatzeko duena– eta Lurralde Antolaketa Sailaren Donostiako ordezkari-
karitzan aurkeztu genituen abenduaren 30ean. Baina gai horren inguruan eraturiko herri-sarea eta batez ere “herriko eragile sozial eta politiko guztien artean lorturiko erabateko adostasuna” izan da garrantzitsuena, honen isla izan baita alderdi politiko guztiak bat etorri izana alegazioarekin. Eta hasieran alde zegoen Diputazioa ere hasi da autobidearekiko desmarkatzen.


Pozik gaude. Institutuzioek kudeatzen dituztenen zurikeria agerian uzteaz gain, beste gezur arriskutsu bat jarri dugu kolokan. Hau da, herritarrek ingurumenarekiko arazoez paso egiten dutela ustearekin, edo behintzat, goitik datozen barrabaskeriak gerarazi daitezkeen ustearen aurrean herritarrek etsita daudelako ustearekin. Bestela esanda: “Gogoko izan ala ez, goikoek nahi dutena egingo dute beti, beraz, zertarako istiluetan sartu?” delakoarekin.

Bada, bai! Batzuetan lortzen da, ezina ekinez eginik! ■

«
Hasieran ezina zirudiena lortu dugu: 7.500 alegazio, horietatik 3.200 Oiartzungo herritarrenak. Lurralde Antolaketa Sailaren Donostiako ordezkari-
karitzan aurkeztu genituen. Baina gai horren inguruan eraturiko herri-sarea eta batez ere herriko eragile sozial eta politiko guztien artean lorturiko erabateko adostasuna izan da garrantzitsuena
»

ASTE HONETAKO

zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2




Korrontzi & oinkari dantza taldea

INFERNUKO HAUSPOA

3 harpidedunentzat
CD bana

www.baga-biga.com

3



Amonatxoak Charo Pita & Fatima Afonso

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea

Navaz y Vides, 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2259. Argia)

LAIA

• Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)

GATIBU

• Uxune Iriondo Urbitzazu (Getxo)
• Malen Ulazia Carballo (Eibar)
• Xabier Igoa Eriz (Aramaio)

EGUTEGI + EUSKARRI 2

• Marisabel Garitagoitia Zabala (Ermua)
• Juan Jose Belamendia Senperena (Azkoitia)

EUSKAL MUSEOA

• Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
• Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
• Irune Eguen Balantzategi (Elorrio)
• Regina Tolosa Agirrezabala (Amezketta)

AQUARIUM

• Mari Eli Ituarte Zarragoikotxea (Markina-Xemein)
• Josu Belar Unamuno (Arrasate)
• Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)
• Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela. Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin Internetarako propio pentsatutako telebista saio bat egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea. Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko eredueta erortzeko.

urtarrilaren
18tik
aurrera

Astero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv

